

EH Bilduren
III. Kongresua



Utopian
gara *aske*.

ZUTUNK



Z

U

T

U

N

I

K

U T O P I A N

G A R A

A S K E

lido politikoa

1. Abiapuntua.....	7
2. Egindako ibilbidetik egungo egoerara	8
3. Euskal Herriko Errepublika konfederala helburu: herri prozesu demokratikoa	14
4. Fase politikoaren ezaugarritzea: hirugarren nazio eraldaketarako prozesua	16
4.1. Aurrera egiteko identifikatutako funtsezko gaiak	16
4.2. Hirugarren nazio eraldaketarako prozesua.....	18
5. Programa politikoaren, herri eraldaketarako proiektuari ekarpena	21
5.1. Herri proiektua	21
5.2. Behetik gora demokrazian sakontzeko garaia.....	23
6. EH Bildu, lanabes estrategiko gisa indartu	25
6.1. Ahots eta erabakigune politiko behinena.....	25
6.2. Ekintza politikoa xedatzeko osagaiak.....	26
7. Azken gogoeta.....	27

Antolaketa eta funtzionamendua

1. Abiapuntua.....	31
2. Antolaketa eta funtzionamendu arloko erronka nagusiak	32
2.1. Kudeaketa instituzionalean goi mailako ardurak hartzeko prestatu	32
2.2. Dagoeneko zuzentzen ditugun instituzioetan herri proiektuaren garapenean jauzia egin.....	33
2.3. EH Bilduren jardura sozio-politikoaren garatu	33
2.4. Egituraren gaitasun politikoa areagotu	34
2.5. Programa politikoaren eraikuntza sistematizatu	35
2.6. Tokiko dinamika eta egitura indartu.....	35
2.7. Hauteskundearen lanketa sistematizatu.....	36
3. Antolaketa eta funtzionamendu arloko egokitzapenak.....	37
3.1. Ardura nagusiak, sailak eta haien arteko harremanak	37
3.2. Eraketa sailaren birkokapena	40
3.3. Arlokako idazkaritzen berrezaugarritzea.....	40
3.4. Hauteskunde zerrenden osaketa-prozeduran egokitzapenak	41
4. Zuzendaritza-egituraren egokitzapenak.....	42
4.1. Hegoaldeko planoa.....	42
4.2. Herrialdeko planoa	46
4.3. Tokiko planoa.....	48

Illdo politik



Illdo
politikoa

1. Abiapuntua

EH Bilduren Kongresuan atera beharreko ondorioen muina azaldu, eta datozen urteotako jarduera eta erronkak zehaztu nahi ditugu txosten politiko honetan. Gure burua prestatu behar dugu datozen urteotan sor daitezkeen eta sorrarazi behar ditugun aukerak baliatzeko, aurrerapausoak emateko, eta izango diren oztopoei aurre egiteko.

Ezkerreko subiraniston eta independentiston jarduerari buruz proposamenak aurkeztea da txostenaren eginbehar nagusietako bat, orain arte garatutako ekintza politiko eraginkorrari ekarpen berrituak egiteko.

Hausnarketa egiteko une aproposa dugu egungoa: alde batetik, egoera orokorraren konplexutasunak gogoeta eskatzen digulako; beste batetik, zehazki euskal nazioaren egoerak arreta merezi duelako, eta, azkenik, hauteskunde zikloen arteko garaia egokia delako arnas luzeko ekinbideak bideratzeko, burujabetzarako eta eraldaketa sozialerako prozesuaren mesedetan.

Ohiko kongresua dugu honakoa. Hauteskunde emaitzak eta gure hazkundea ikusirik, jarraipen Kongresua planteatzen genuke gure buruari eta unean uneko azaleko egoerari soilik so egingo bagenie. Gure ardura handiagoa da, ordea; ezin gara zilborrari begira geratu, bertan gozo lozorroan. Horregatik, honakoak ohiko kongresu baten baldintzak baditu ere, ez ohiko ondorioak atera behar ditugu, Euskal Herriaren ziklo historikoaren eta aurrera begira egin beharreko lanaren arabera.

Uste dugu bi faktore erabakigarri daudela gaur egungo abagune politikoan: politika neoliberalen porrota eta Espainiako estatuaren eredu autonomikoaren agortzea. Egoera horren aurrean, alternatiba bakarra da gure sen komunitario-nazionala indartzea xede izango duen mailaz mailako burujabetza prozesua garatzea, funtsezkoa baita botere politiko handiagoa lortzea politika ekonomiko eta sozial eraldatzaileak egikaritu ahal izateko, herri honen etorkizunarekin konprometituta egongo den sektore publiko baten eskutik. Horretarako proposatzen dugu hirugarren eraldaketa nazionalari ekitea.

Ikuspuntu horretatik finkatu ditugu gure bi betekizun nagusiak: alde batetik, fase politiko honetan gaur egungo administrazio eremuetan egiturazko aldaketa esanguratsuak lortzen saiatzea, nazio onarpena, lurralde kohesioa eta eskumen boterea (edo soilik eskumenak handitzearen) handitzearen eskutik; eta, beste alde batetik, burujabetzarako eta eraldaketa sozialerako ibilbideari erregaia emango dion herri susperraldi berri bat martxan jartzea.

Bistan da hori dena edozein alderdikeriaren gainetik egin behar dela, eta halaxe garatu nahi ditugu guk ere erronka horiek, askatasunaren bidea maila batean edo bestean urratu nahi duen eragile edo indar ororekin elkarlanean. Programa politiko eraldatzailea beste sektore eta eragileekin partekatu nahi dugu, herri erronkei sakoneko aldaketa politikoak zein sozialak erdietsi nahi ditugun guztion artean ekiteko asmoz.

2. Egindako ibilbidetik egungo egoerara

Uneko azterketa egitea baino gehiago, garai oso bateko ibilbidearen azterketa egin nahi izan dugu, txosten politikoak finkatu behar dituen eduki eta ardatz nagusiei helduleku sendoa eskaintzeko.

Denboran kokatuta, atzera begira bi mugarri ditugu: Bildu sortzea bera ekarri zuen aro berria, alde batetik, eta gure azken Kongresutik honako epealdia, hauteskunde zikloan bete-betea garatu dena, beste batetik. Lehenengoari dagokionez, esan behar da aro hori egonkortu dela eta, nahiz eta aurrekoaren zenbait ajek eta premiek oraindik ere aterabideak behar dituzten, aldaketa nabarmena gertatu dela Euskal Herrian. Hori da, beraz, gure jarduerarako errealitatea. Bigarrenari dagokionez, berriz, nabarmentzekoa da urteotan gure proiektua hainbeste hedatu eta indartu izana. Horrek ematen digu, horrenbestez, aurrera egiteko sendotasuna.

Erreferentzia horiek hartuta, azterketa gure burutik hasi dugu, segidan fokua zabalduz gaur egun Euskal Herriak, testuinguru konplexu baten erdian, parez pare dituen desafioak azaltzeko.

EH Bilduren hazkundea

Hamahiru urteren ostean, lehen baieztapen hau egin dezakegu: asmatu egin zuten alderdi eta pertsona sortzaileek indarrak biltzeko egindako apustuan, hasieran hipotesi bat baino ez zena gure herriko errealitate politiko eta sozialaren erdigunean ongi errotuta dagoen indar eraldatzailea bilakatu baita, ibilbide horretan indarrak metatzen jarraitzeko gaitasuna erakutsi duena.

Azken hauteskunde zikloak EH Bilduren goranzko joera berretsi digu. Oro har, ezker independentistak aurrera egin du, kuantitatiboki bezainbeste bere eragiteko gaitasunean eta egiten diren politikak erabakitzeko ahalmenean. Izan ere, indar zentrala gara gizartean, eta indar erabakigarria gara instituzio guztietan.

Ibilbide hori, nazio ikuspegiari jarraituz, EH Bai mugimenduarekin batera egin dugu, EH Bildu eta EH Bairen arteko akordio estrategikoak bultzaturik. Ipar Euskal Herrian ere, EH Baik ordezkatzeko duen ezkerreko proiektu abertzaleak gero eta babes handiagoa du herritarren aldetik. Abertzaleen erreferente politiko-instituzional nagusia izateaz gain, ezkerreko lehen indarra eta Ipar Euskal Herriko bigarren indar politikoa izatera iritsi da.

Emaitza horiek jarri dugun oinarriaren sendotasuna erakusten digute. Aitzitik, jabetu behar dugu ziklo elektoralak eta botoen metaketa gorabeheratsuak izaten direla, eta sektore hain zabalentzat erreferentzia izateak konplexutasuna gehitzen diola gure egitekoari. Jasotako babesa egoki ulertzea, hor daukagun ahal ongi kudeatzea eta, bereziki, indar hori gizarte eta politika eraldatzeko bidean eraginkorra izatea da gure erronka, herritarrek EH Bildurengan jarri duten itxaropen eta konfiantzari zuzen erantzun ahal izateko.

Orain artean gure ibilmoldea egokituz joan gara prozesuaren eskakizunei albait hobekien erantzun ahal izateko. Izan ere, EH Bilduren hazkunde prozesua testuinguru politiko aldakorrean egin dugu, eta etengabe aldagai politiko berriak txertatu behar izan ditugu gure hausnarketan. Esan dezagun, bide batez, uneen uneko egoeraren, euskal jendartearen lehentasunen zein gure herriaren beharren inguruko irakurketa egokia egiten asmatu dugulako izan dugula arrakasta, gogoeta horretan euskal herritarrekin ko-

nektatzea lortu dugulako. Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko ildo koherente bat mantentzearekin batera, EH Bilduk egoera berriei aurre egiteko kontraesan berriak asumitzen eta gaingiditzen jakin du.

Guztiarekin ere, Euskal Herria erabat aldatu denez, 2011ko ikuspegiek ez digute balio 2024ko errealitatea zuzen irakurtzeko eta, are gutxiago jakinda hurrengo hamarkadari begirako aurreikuspenak eta ildoak orain zehaztu behar ditugula eta gaur egungo joera asko azkartu egingo direla. Mundu mailako aldaketek gurean duten eraginari gehitu behar zaio Euskal Herrian gatazkaren parametroak eta gure eskubide nazional eta sozialen aldeko borroka ulertzeko modua aldatu izanari. Bestelako gizarte ingurunea da gaurkoa.

Guk aldarazi ditugu ikuspegi horiek hein handi batean, ziklo politikoaren aldaketaren gakoetako bat hori baitzen 2011ko gure asmoetan, eta euskal gizartearen itxuraldatzea ezin baita ulertu EH Bilduk aurreko zikloa gaingitu eta gatazkaren ezaugarriak aldatzeko egindako ekarpenik gabe: Urriaren 18ko adierazpena eta eduki berarekin landutako ekimenak; presoen kaleratzearen alde egindako era guztietako lana eta dispersioaren amaiera; biktima guztien errekonozimenduaren alde egindako lan iraunkorra.

Bide beretik, ziklo aldaketa gauzatu baino lehen indartzen ari ziren aldaketa batzuk ikusgarri egin dira azken hamarkadan. Historikoki ezkerreko independentismoa eta subiranismoa ahulagoa izan den lurraldeetan gertatzen ari den aldaketa da, beharbada, naziogintza eraldatzailearen ikuspegitik irismen handiena duena. Izan ere, lurralde guztietan metatu ditugu indarrak, eta lehen baino gehiago gara orain, baina lurralde horietan izandako bilakaerak sakoneko mugimendu soziologiko baten aurrean gaudela iragartzen digu, non argiki agertzen den inoiz baino handiagoa dela Euskal Herria erreferentzia gisa duten eta aldaketa politiko eta sozialerako gogoia adierazten duten herritarren kopurua. Horrek, batetik, aliantza berriak ahalbidetu ditu honezkero, eta, bestetik, lurraldea egituratzeko babes indartsua dugula erakusten digu.

Horrenbestez, euskal gizarteak izan duen bilakaeran, 2024an gure alde daukagun funtsezko osagaia hau da: gero eta jende gehiagok egiten du bat EH Bilduren ideiekin, eta asko hedatu da euskal gizartean daukagun eragiteko gaitasuna. Ezkerreko subiranismoak eta independentismoak daukan eragiteko gaitasun indarberritu horrek finkatzen du gure orubea aurrera egiteko. Hala ere, tentuz aritu behar gara. Hauteskunde alorrean aurrera egiteak berez ez dakar herrigintzan, kaleko borroketan eta oro har kontra hegemonian aurrera egitea. Gerta liteke kontrakoa, metabolismo komunitarioa galtzen joatea. Beraz, lehentasuna, metabolismo hori indartzea da, lan instituzionalaz gain lan molde anitzak baliatuz horretarako.

Mobilizazio ziklo indartsua

Ikusi dugunez, azken hamarraldiko hauteskunde emaitzek burujabetza eta ezkerreko politika publikoak nahi dituen herri baten argazkia eskaini digute. Hortaz, euskal herritarren borondate eta nahi subiranista indartuta ageri da, herri honek ez baitu atzerapausorik onartzen bere autogobernuan eta eskubide nazional zein sozialetan egin dituen urratsetan, eta harago, burujabetza osoa eskatzen du, bizitza politiko eta sozialari eragiten dizkieten erabaki guztiak Euskal Herrian har daitezen.

Euskal Herrian 2011tik garatu den mobilizazio ziklo arrakastatsuak ere argazki bera uzten digu. Alor askotatik elikatutako mobilizazio zikloa izan da, gorabeheratsua iraunkortasunari dagokionez, baina tartean, inoizko mobilizazio handien lekuko izan dena: Gure Eskuren mobilizazioak; Nafarroa Garaian eskuinaren hamarkadetako gobernuaren aurrean aldaketa politiko eta soziala sustatzeko izandako mobilizazio aroa; pentsionisten borroka; presoen etxeratzearen aldeko mobilizazioak; Altsasuko gazteen alde justizia eske; Korrika; ETaren armagabetze prozesuan gizarte zibilaren inplikazioa; euskal sindikalgintzaren grebak eta mobilizazio ildoak.

Guztien artean bat nabarmendu behar bada, izan dituen ezaugarri bereizgarriengatik eta izan duen indarrarengatik, hori da Euskal Herriko feminismoak egin duen ekarpena pentsamendu askatzaile bat eratzeko, eta eragin duen iraultza pertsona aske osatutako herri aske bat eraikitzeko bidean. Argiki, gure prozesu askatzailea ezin da ulertu borroka horrek ekarri duen eraldaketa erdigunean jarri gabe.

Mobilizazio ziklo orokorrari erreparatuta, ordea, ez dugu lortu indar eta aldarrikapen horiek guztiak burujabetzaren aldeko prozesu baten logikan kokatzea, edo borroka horietatik Euskal Herriaren burujabetza prozesua elikatzea. Norbaitena izatekotan, noski, gurea da gabezia horren ardura. Beharbada, azken urteetan ez dugulako asmatu nazio auzia erdigune politikoan ongi kokatzen.

Euskal naziogintza eraldatzailearen erronkak

Herri diagnostikoa egiteko, has gaitezen oinarritzko abiapuntutik: Euskal Herria oraindik onartua ez dagoen herri zatitua da. Egiturazko errealitate horren baitan, ikus dezagun nola dagoen gure nazioaren eraikuntza aztergai dugun testuinguru historikoan, begirada hori funtsezkoa baita datozen urteetako gure ildoaren lehentasunak finkatzeko.

Gure diagnosis hau da: botilak ura galtzen du, gure herriaren metabolismo komunitarioa ahultzen ari da. Naziogintzan aurrerabide sendorik egin ezean edo burujabetza maila altuagoak lortu ezean, Euskal Herriaren nazio proiektua eta gure herri identitatea zaurgarri ageri dira datorren hamarraldian ditugun erronken aurrean ongi kokatzeko.

Urteotan, Ipar Euskal Herrian gauzatu da urrats instituzional handiena: 2017an Euskal Elkargoaren sorrera mugarri izan zen, lehen aldiz Ipar Euskal Herriak ezagupen administratibo eta instituzionala lortu zuen-eta. Urrats horrek lurralde ikuspegia sendotzen laguntzen du, eta Euskal Herriari erreferentzia indartua ematen dio, lurralde bateko kidetasun sentimendua elikatzen duen heinean, oraindik urrun gauden arren gure herriak autogobernurako beharrezkoak dituen tresnak edukitzetik.

Bide horretan, Ipar Euskal Herrian adostasunean eta akordioan oinarritzen den prozesu politiko bat garatzen ari da azken urteetan, eta horrek indar harreman berria sortu du Frantziako Estatuaren aurrean. Hots, aukera berriak landu dira burujabetza prozesuan agertoki berriak sortzeko.

Bien bitartean, EAE eta Nafarroa Garaian egiturazko lorpen politiko eta instituzionalik ez dugu erdietsi burujabetzaren bidean. Hari beretik, ez da aurrerapausorik eman lurraldeen arteko artikulazio politikoan, nahiz eta urratsak egin diren egiturazko aldaketa horiek erdiesteko indar harremanetan zein baldintzetan.

Nabarmendu behar da, gainera, Espainiako Estatuaren aldetik azken hamarkadetan zentralismorako urrats handiak egin direla, eta marko autonomikoaren eta foralaren potentzialtasun eta eskuduntza asko kamustuta edo edukiz hustuta ageri direla. Estatuaren esku-sartzea handitu egin da, eta auzitegien ebazpenen bidez Espainiako estatuak ahalmen asko berreskuratu ditu.

Oharkabean igaro diren erasoak izan dira gehienetan, gure autogobernuaren eta nazio izaeraren aurka-ko erasoek ez baitute neurriko erantzunik jaso euskal erakunde eta alderdien aldetik, eta ez dute inolako konfrontazio politikorik eragin. Egoera horien aurrean ez dugu gaitasunik izan gehiengo subiranista erantzun bateratu baten inguruan elkartzeko.

Noski, Euskal Herriaren eskubide nazionalen aldeko gehiengoak aktibatzen ez diren bitartean, gure nazio izaera ukatzen dutenek, gutxiengo izan arren, beto gaitasuna izango dute. Horregatik da garrantzi-

tsua “lehenik aberria, gero alderdia” printzipioa gure praktika politikoaren gidari izatea, herri gisa atzen-du ezin diren erronkak ditugulako.

Erronka horien artean, behinik behin, hauek nabarmendu nahi ditugu:

- » Euskararen biziberritze prozesuaren geldotze aro batean sartu gara. Argi gorri hauek identifikatzen dira: arnasguneen ahultzea, euskal kulturgintzaren transmisio nahiz erreferentziaren ahulezia eta erabilera kurbaren gelditzea.

Horrez gain, euskararen eta euskaldunen aurkako oldarraldi ideologiko, politiko eta judiziala egiturazkoa da, eta euskararen biziberritze prozesuak behar dituen XXI. mendeko hizkuntza politikak zapuztera dator.

Ezagutzan eta baliabideetan aurreratu den guztiarekin lehen baino baldintza eta oinarri hobeak badauzkagun arren, gaitasunean, erabileran eta hizkuntz identitatearen eraikuntzan motelaldia ematen ari da. Hau horrela, jauzi berriak eragin behar dira datorren hamarraldiko erronken aurrean euskararen biziberritze prozesuan atzerakada gerta ez dadin. Horregatik, EH Bildurentzat lehentasunezko erronka izango da urrats horiek egiteko beharrezkoak diren hizkuntza politika integralak sustatu eta gauzatzea.

- » Euskal sistema komunikatiboa ahultzen ari da digitalizazio prozesuaren testuinguruan, sare globalaren praktika komunikatiboen itsasoan lausotuta, eta erreferentzia marko komunikatibo espainiarrean zein frantziarrean itota.
- » Gure herriaren ongizate eta garapen adierazleek zaurgarritasun faktore inportanteak ageri dituzte aro aldaketa honetan:

Euskal Herriko ehun industrial eta ekonomikoa ahuldu egin da, munduko erakundeek, EBk, Espainiako eta Frantziako estatuetako gobernuek eta Hego Euskal Herriko erakundeek bultzatutako politika neoliberalen eta globalizazioaren ondorioz. Horrek, sistemaren motorra izan diren enpresa garrantzitsuen desertrotzea eta euskal erakundeek sistema horren gaineko erabakitze ahalmenaren agorpena eragin du. Alde batetik, enpresa asko kanpoko inbertitzaileei edo atzerriko enpresa-taldeei saldu zaizkie, eta, bestetik, gero eta beharrezkoagoa da enpresa estrategikoen gaineko kontrol publikoa.

Trantsizio energetikoa blokeo eta planifikaziorik gabeko egoeran aurkitzen da, energia berriztagarrien hedapena antolatzeke ikuspegi estrategikorik gabe.

Elikadura-burujabetza sustatzeko eta horren aldeko apustua egiteko politika publiko sendorik ez dago. Herritarrek elikatzeko eta ondo elikatuak izateko eskubidea dute, eta erakundeek hori lortzeko ahalegin guztiak egin behar dituzte. Zertaz elikatu, non eta nola ekoiztu, osasuna eta ingurumenaren ikuspuntutik oso garrantzitsuak dira. Eta horretarako, elikadura-burujabetza eta agroekologia dira gure markoa.

Lehen sektorea krisian dago, krisi kronikoan, bizi baldintza duinik gabe nekazari zein arrantzaleentzat, merkatu eta industriarekiko erabateko menpekotasunean, eta landa eremuen huste prozesu geldiezinean. Egoera honetatik irteteko diagnostiko zehatza egin eta 2030erako sektorearen plan estrategikoa diseinatzeko oinarriak zehaztu behar dira. Horretarako ezinbestekoak izango dira politika publiko eraginkorrak sustatzea.

Despopulazioa azkartzen ari da Euskal Herriko lurraldearen eremu zabaletan, eta berebiziko arazoa bilakatu da Arabako, Nafarroa Garaiko eta Zuberoako eskualde askotan.

Klima aldaketari aurre egiten lagunduko duen basogintza politika eredu berri bat garatu beharra dago. Kasu batzutan monokultibotik irteteko (pinua, eukaliptua), eta bestetan baso eremuak handitzeko, kasu guztietan, apurka-apurka baso anitzak eta naturalak sortzen joateko. Honek baso kudeaketa berri bat garatzea ere eskatuko du.

Aberastasunaren birbanaketan desoreka eta arrakala handiak ageri dira. Aberastasuna sortu eta banatzeaz ari garelarik, ekonomia eta enpresa arloko erabaki guneetan langileen parte hartzearekin proaktibo izango diren ereduak lehentsi behar dira.

Bilakaera demografikoaren aurrean erronka berriak ditugu: batetik, gizartearen zahartzearen ondorioak, eta, bestetik, immigrazio prozesu berriak Euskal Herritik kudeatzeko, kohesio soziala ziurtatu, bazterketa soziala eta asimilazio prozesua saihesteko, eskumen burujabe eraginkorren beharra eta, azken aldian, hedatzen ari diren arrazakeria eta xenofobia ekiditeko politikak.

- » Ideologia neoliberalaren kalteak nabari dira euskal gizartean (sakabanaketa soziala, indibidualismoa, kontsumismoa, lehiakortasuna, likidotasun ideologikoa), eta baita urtetan zehar gauzatu diren politika ekonomiko neoliberalen ondorioak ere, hala nola: etxebizitzaren egoera, osasun sistemen egoera, porlanaren politika, turismoaren garapen masiboaren eraginak, zaintza zerbitzuen egoera, gazteen emantzipatzeko zailtasunak.
- » Azkenik, nazioarteko testuinguruak gurean izango duen eraginari begiratuta, hainbat megafaktore identifikatzen dira gure herriko paisaia soziopolitiko eta kulturala itxuralda dezaketenak: iraultza teknologikoa, krisi klimatiko-ekologikoa eta aldaketa soziodemografikoak, munduan goraka doan gerra globalizatu baten arriskuarekin eta azken hamarkadetan bezala Asia Ekialdeko industria, ekonomia eta teknologiak izan duten hazkundeak, mendebaldearen kudeaketa neoliberal traketsarekin batera auzitan jarri duten mendebaldeko eta Euskal Herriko industria.

Euskal nazioa eta Espainiako eta Frantziako estatuen egoera

Garai nahasietan bizi gara, non aldaketa handiak oso azkar ari diren gertatzen. Horrek aro aldaketa baten aurrean gaudela iragartzen digu: mundu mailako ordena aldatzen ari da, oreka geopolitikoak birkonfiguratzen ari dira, potentzien arteko lehia fronte ekonomiko zein militarrean garatzen ari da, eta autoritaris-morantzko joera indartzen ari da estatu askotan.

Nazioarteko testuinguru konplexu horretan kokatu behar dugu euskal prozesu politikoaren errealitatea, eta, zehazki, Euskal Herria onartzen ez duten bi estatuen bilakaeran. Europako esparruan, aldaketa horien guztien ondorioz, eskuin muturrak gora egin du maila politikoan, instituzionalean eta ideologikoan, eta zentro politiko eta beste indar politiko batzuk ere hurbildu egin dira bere jarreretara: migrazio-arrazismoa, seguritarismoa, muturreko liberalismoa...) Hori guztia Europar Batasunean eta haren organoetan ere isladatzen da. Esparru europar horretan, hasierako osagai sozial eta demokratikoak gero eta gehiago ahultzen ari dira. Askatasun demokratikoak eta giza eskubideak murrizteko politika, liberalizazio ekonomikoa, militarismoa eta palestinarren genozidioarekiko konplizitatea sendotzen ari dira. Errealitate horretan kokatu behar dugu euskal prozesu politikoak, bereziki Frantziako eta Espainiako estatuei dagokienez, horrek gure gizartean eragin handia izan baitezake, bai maila politikoan, bai maila

ekonomiko eta sozialean ere. Joera horiek nabarmenduko diren agertoki baterako prestatzea ere hurrengo aldirako zeregina da.

Espainiako Estatuan, azken urteetan areagotu egin dira 78ko trantsizioan ezarritako estatu ereduaren agortze zantzuak, sistema politiko-instituzionalaren, lurralde ereduaren eta sistema sozioekonomikoaren inguruan ezarritako estatu adostasunak auzitan daudelako egun.

Krisi egoera horretan, erreakzio autoritario eta atzerakoien joera areagotu egin da Espainiako estatuan, helburu garbi batekin: balizko aldaketak baldintzatzea eta estatu ereduaren egiturazko aldaketak indargabetzea. Izan ere, eskuineko eta ultraeskuineko sektore horiek uste dute 78ko erregimena bere horretan salbatzeko aukera bakarra autoritarismoaren itzulera dela, eta, horregatik, estatu sakona (Guardia Zibila, botere judiziala, botere ekonomikoa) aterabide autoritarioa sustatzen ari da, erabateko polarizazioa eraginez Espainiako estatuko koalizio gobernuaren aurka.

Bide batez, egoera hori abagune bilakatu da guretzat, ezker independentista koalizio gobernuaren gehien-go iraunarazteko indar erabakigarria bilakatu den heinean, eta aspaldi nahiko genituzkeen eztabaidak zabalik dauden heinean.

Horregatik, aldaketarako aukerak baliatzeko, euskal herritarren interesen arabera gutxieneko proposamena mahairatu dugu: ultraeskuinari ateak itxi; elkarbizitza sustatzeko politikak bideratu, besteak beste, legea aplikatuz presoen auzia konponbidean jartzeko; Euskal Herriaren nazio aitorpenean eta burujabetzan urratsak egin; ezkerreko politika sozialak gauzatu eta eskubide zibilak errespetatu.

Abagunea ahula da, horratik, eta atzerakada autoritarioaren pultsioa oso indartsua da, gainera. Horregatik berresten dugu, Espainiako Estatuko agertokiak edozein izanda ere, euskal herritarren artean sortuko ditugun indar harremanak eta ezker subiranistaren eta independentistaren ideien inguruan Euskal Herrian bilduko ditugun indarrak direla gure autogobernu eta autodeterminazio prozesuan aurrera egiteko gakoa.

Frantziako Estatuan, areagotu egin da jakobinismoaren identitate krisia egiturazko eboluzioen aurrean, besteren artean: bilakaera demografikoa, immigrazioaren eragina eta Frantziako estatuaren nazioarteko eragin gaitasunaren ahultzea.

Testuinguru horretan, Europako hauteskundeetan eskuin muturra gailendu izanak lurrikara politikoa eragin du, eta astindua eman dio Frantziako estatuko mapa politikoari, Macronek legebiltzarrerako hauteskundeak deitu ostean izan diren mugimenduengatik. Herritar Fronte berrira biltzeko hautua hobetsi zuen EH Baik, ezkerreko aliantzak Euskal Herriko funtsezko gaien inguruan transbertsalki lortutako adostasunak programaren erdian kokatzen zituelako (bilakaera instituzionala, euskara, bake prozesua, lurra eta etxebizitza, laborantza herrikoia).

Hala izanik, indar progresistekin batera eraikitako herri blokea emankorra izan daiteke Frantziako Estatuaren parean Euskal Herrian bertan azken urteetan sortu diren indar harremanak elikatzen jarraitzeko. Are gehiago, Herritar Fronteak gurean lortutako garaipen argiak eta lehen aldiz abertzale bat Frantziako estatuko Biltzarrera joateak bultzada berritua eman diezaiokie ildo horri.

Frantziako estatuak azpiratuak dituen nazioekiko harremanari dagokionez, bestalde, aipatu behar da irekidura keinu batzuk gertatu direla azken urteetan. Alabaina, Frantziako estatuko oinarri zentralista-jakobinoa azpimarratu behar da guztiaren gainetik, gaur gaurkoz Parisen hartzen baitira gure geroa baldintzatzen duten erabakiak, eta erabaki horiek ez diete euskal herritarren interes eta beharrei erantzuten.

3. Euskal Herriko Errepublika konfederala helburu: herri prozesu demokratikoa

Euskal Herria bere buruaren jabe izaterainoko ibilbideak definitu behar du EH Bilduren estrategia, Euskal Herriko Errepublika Konfederala bada azken helburua. Gure baitan jatorri, ibilbide edota ikuspuntu ezberdinak izanagatik, apustu politikoaren irismena burujabetza osoan jarri dugu, emantzipazio nazionala eta soziala lortzeko bidean.

Euskal Herriko Errepublika Konfederalaren egitasmoa, gaur egun indarrean den errealitate administratibotik abiatuta; hau da, hiru eremuetako herritarren borondatea –bakoitza berean adierazita– errespetatuz gauzatu beharko da. Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa entitateek barnebiltzen dituzten hiru eremuek hala erabakita eraiki ahal da Euskal Herriko Errepublika Konfederala, eta horrek emango dio borondatezko lokera demokratiko eta herritar sendoa. Nola nahi ere, Estatuaren meneko egitura administratibo horiek aldatuko balira edota bertzelako subjektu politiko-administratibo batzuen araberrako egituraketa sortzeko egokiera sortuko balitz, Euskal Herriko Errepublika Konfederalera iristeko egokienak liratekeen baliabide eta egitura politikoak hartuko genituzke aintzat.

Nolanahi ere, ezkerreko subiraniston estrategiak Euskal Herri osoa du helburu, lurralde osoan garatzen dugulako gure jarduera eta, eremu bakoitzaren araberrako jardueraz gainera, nazio mailako dinamikak gauzatzen ditugulako.

Euskal Herria eraikitzeko eta eraldaketa soziala erdiesteko prozesuak herri izaera izango du betiere. Hau da, egin beharreko ibilbideak nahikoa babes (gehiengo nahikoak lortu) eta inplikazio (sektore zabalen aktibazioa) behar ditu izan, herri gisa eta hiru eremuetako bakoitzean indar harreman egokiak sortu ahal izateko; dela erasoaldiei eta inboluzio tentaldiei aurre egiteko, dela negoziazio mahai eta foroetan lorpenak eskuratzeko eta horiek betearaztea bermatzeko, dela herri gisa burujabetasunez erabakiak hartzeko.

Herri prozesu autozentratua bultzatu nahi dugu, epizentroa Euskal Herrian jarrita eta agenda propioa osatuz, Euskal Herria delako aldaketa politikoak zein sozialak erdiesteko eremua, demokrazia eratzeke eta antolatzeke markoa.

Autozentratua ez ezik, burujabetzaren eta eraldaketa sozialaren bideak mailaz mailakoa ere izan beharko du, eta horrek iraunkortasuna, egoera berriak sortzeko gaitasuna eta botere politikoaren zein eskuduntza maila gorenen berreskurapen progresiboa eskatzen du.

Haatik, ezin dezakegu abstrakziorik egin: estatuak Euskal Herria ukatu izana, gure eskubideak zangopilatu izana eta beren nagusitasunari inposizio bidez eutsi izana ditugu gairitu gabe segitzen duen gatazka politikoaren sorburuak. Herri prozesu autozentratuak eta mailaz mailakoak, beraz, gatazkaren konponbidea lantzeko eta errespetuzko harremanak eraikitzeke bokazioa ere izan behar du.

Barne adostasuna eta kanpo harremana ahalik eta modu onuragarrienean taxutzeko, prozesuari erabateko izaera demokratikoa ematea hobesten du EH Bilduk, hau da: Euskal Herriko indarren eta eragileen arteko eztabaida eta akordioak garatu eta erakundeetan akordio horiek ofizialdu; akordio nagusiak osoki eta bermeekin egikaritzeko estatuarekin negoziazio eremua herri gisa zabaldu, eta amaieran euskal herritarren berrespena jaso.

Eskema horrek hiru printzipio gidari izan beharko lituzke: marko legalak eta legeria oro har herri borondateari egokitu behar zaizkio, eta ez alderantziz; eskubide guztiak –kolektiboak zein indibidualak, politikoak zein zibilak– pertsona guztientzat bermatu behar dira; eta, azkenik, lurralde eremu bakoitzean gehiengoak artikulatu behar dira.

Zorritzarez, aipatu prozedura demokratikoak ezinezko bihurtu dira gurean azken hamarkadotan. Alde batetik, txostenean lehenago ere aipatu dugunez, unionistek hainbatetan betoa erabiltzen dutelako. Beste alde batetik, estatuak zapalkuntza bidez lortutako nagusitasunaz baliatzen direlako. Adibide bat jartzearren: duela 20 urte EAEko Estatutu Politikoa eraberritzeko Legebiltzarrak gehiengoz onartutako proposamenak Madrilén jasandako betoa.

Horregatik hartzen du balio erantsia herri prozesu autozentratuak eta mailaz mailakoak. Bestela, ibilbiderik gabe geratuko ginatekeelako beto eta ukoen aurrean. Erakundeetan zein gizartean lortutako indar harremanak eta herri mobilizazioak zein antolakuntzak trakzio eragile izan behar dute. Bideak egiten gaitu.

Beraz, ezkerreko independentistok eta subiranistok burujabetza osoaren aldeko indar harremana sortzen jarraitu behar dugu, gero eta herri sektore gehiagok bidea egitearen beharra barnera dezaten eta horrekin konpromisoa har dezaten.

Ezin dezakegu herririk gabeko biderik egin, eta bidea egiteko ezin gaitezke herriak noiz eskatuko duen zain egon. Boluntarismo hutsala litzateke lehena; eraginkortasunik gabeko pasibotasuna, bigarrena. Burujabetzarantz urratsak egiteko baldintzak sortzen jarraitu behar dugu eta, ernaldu ahala, herri eskabideari erantzun beharko diogu. EH Bilduren konpromisoak garbia izan behar du, bai ala bai: euskal herritarrek mandatu demokratikoa ematen dutelarik, mandatu hori betearaztea, horretan ahaleginak eta bi egitea.

Jakin badakigu, azkenik, independentziaren bidea nazioartean indarrean diren gutxieneko arauei erreparatu egin behar dela. Oso kontziente gara, ordea, horiek betetzeak ere ez duela bere horretan bermatzen nazioarteko errekonozimendua. Inozotasun politikoa litzateke besterik ustea, baina bidea egiteko aurreikusi beharreko pasalekua da. Atea ixten diguten estatuen ukazioaren aurrean, gure herri prozesuak honako baldintzak bete beharko lituzke halako onarpen bat eskuratu ahal izateko: (1) prozesua bide bakeatsu eta demokratikoetatik bideratu behar da, (2) bidea herri borondatetik jasotako zilegitasun demokratikoa duten eta indarrean diren instituzioen bitartez egin behar da, (3) erakunde horietan gorpuzten den herri borondatearen adierazpenak –independentziaren aldekoa, esaterako– denboran eutsita izan behar du, (4) etenik gabe estatuarekin alde bikotasunez aritzeko eta akordioetara iristeko borondatea erakutsi behar da, eta (5) prozesua nazioarteko komunitatearekin batera egin behar da.

4. Fase politikoaren ezaugarriak: hirugarren nazio eraldaketarako prozesua

Ukazio egoera batetik Euskal Herriaren eskubide nazionalak eta sozialak errespetatuko dituen demokrazia egoera baterako igarobidean gaude, aspaldi hasitakoa eta oraindik ere denboran luza daitekeena. Igarotze hori ezin da zirt edo zart argituko den momentu baten moduan ulertu. Horrek antsietate politikoa baizik ez du eragiten; esate baterako, egungo markoa behin eta berriz agortutzat jo arren, nahikoa aldaketarik ez dugula erdiesten egiaztatzen dugunean. Igarobidea ez da, beraz, une edo egonaldi bat, ibilbide bat baizik.

2011n emandako aldaketa historikoek –besteak beste, Bilduren sorrerak berak– abiarazitako garai berriak igarobide horretan aurrera egitea ahalbidetu digu azken hamahiru urteotan. Gabeziak gabezia eta arazoak arazo, aurrerantz goaz, eta hori da garrantzitsua. Horratik, kontziente izan behar dugu hain garai aldakorretan egoerak okerrera ere egin dezakeela zenbaitetan. Bidea ez da zuzen-zuzena eta bihurgunerik gabekoa izango. Gorabeheratsua izango da, halabeharrez. Hartara, gure xedea egiturazko aurrerapausoak egitea, geldiuneak saihestea eta atzerapausoak ekiditea izanen da.

Jadanik esan dugunez, emantzipazio prozesu gradualak da gurea, ezkerreko subiranistok ez dugulako kolpe bakar batez, tarteko helmugarik irudikatu gabe, irabazteko aukerarik. Garaipen eta lorpen partzialak beharko ditugu egiturazko aldaketak lortzeko.

Esandakoak ez dakar berarekin fase honetan azelerazio historikoaren aukera baztertzeari. Halakorik gerta daiteke kanpoko faktoreei esker –hala nola, nazioarteko aldaketa handiak, gure eskubideak ukatzen dituzten estatuen krisien sakontzea edota European estatutik gabeko nazioen askapen prozesuen aurrealdiak–, edota gure aktibitateak berak eragindako goi mailako indar metaketari eta herri aktibazio zein eskabideari esker. Une jakinetan abagune horiek sortzeko eta horiek aprobetxatzeko gaitasuna izan behar dugu, prozesuaren irakurketa dinamikoa eginez.

Azken batean, fase honen zioa burujabetza osoa lorgarri bilakatzeko egoera(k) erdiestea da. Horregatik da gurea estrategia independentista, ez baldintzei erreparatu gabe urrats bakarrez independentzia lortzera goazelako, independentziari bidea zabaltzeko baldintzak sortzera goazelako baizik, herri gisa eta hiru lurralde eremuetako bakoitzean. Burujabetza osoa izanik helburutzat, hori erdiesteko prozesu gradualak proposatzen da urrats bakarrez lortzea boluntarismo hutsa eta utsala litzatekeelako.

Fase hau, beraz, baldintza materialak, adostasun politikoak eta gehiengo sozialak egituratzeko epealdi erabakigarria dugu.

4.1. AURRERA EGITEKO IDENTIFIKATUTAKO FUNTSEZKO GAIK

Gaur egungo fasearen garapena neurtzeko orduan, **bost arlotan** jarri behar dugu arreta. Horietan ahal bezainbeste aurrerapauso lortzeko saiakera egin behar dugu; hain zuzen, arlo horietan –zehazkiago lehen lauetan– egindako aurrerapenak bilakatuko baitute egingarri burujabetzaren hautua. Bosgarrena baldintza da:

etorkizunaren atea egiazki gurutzatzeko aurreko fasearen zauriei sendabidea eman behar zaie, denon onerako aurrerantzean jadanik abian diren elkarbizitzan eta adiskidetzan sakontzeko.

Nazio aitortza

- » Eremu juridiko-politikoan onarpen maila lortu; bereziki, estatus politikoak berritzeko orduan.
- » Nazioarteari begirako urratsak egin hainbat alorretan, nazioarteko komunitatearen aitortza lortzeko, hala nola: Euskal Herrian indarrean diren erakundeen parte hartzea ahalbidetu nazioarteko foro eta instituzioetan, nazioartean ordezkaritzak izateko aukera normaldu.

Lurralde artikulazioa

- » Hiru entitate administratiboen arteko harreman politiko, ekonomiko, soziala eta kulturala sustatu eta instituzionalizatu.
- » Euskal Herriko eremu administratiboak lotuko dituen kooperazio instituzionala eta erakundetzea garatu.
- » Nazio mailako antolaketa eta dinamikak sustatu.

Erabakitze eskubidea

- » Euskal Herriari dagokion autodeterminazio eskubidea esplizituki onartua izateko aldarrikapena adostu, bereziki, estatus politikoak berritzeko orduan.
- » Euskal lurraldeen eskubide historikoen eguneratzeak erabakitze eskubidearen aitortza ekarri behar luke.
- » Eskubide horren egikaritzak posible izateko baldintzak sortu.

Eskumen/botere maila handitzea eta bermatzea

- » Euskal Herrian indarrean dauden administrazio egitura guztien eskumenak handitzeko indar harremana sortu eta horren arabera lorpenak eskuratu.
- » Jadanik badauden eskumenen potentzialtasuna ahal bezainbeste indartu. Estatugintzaren eta gehiengo sozial zein herrikoien mesedetan, gaur egun Euskal Herrian dauden erakundeen ahal-duntzea sustatu.
- » Atzerapausoak ekiditeko eta indargabetzeko berme sistema mahaigaineratu herri gisa estatuekin izan beharreko aldebiko harremanean.

Elkarbizitza sustatzea etorkizun hobeagoa ahalbidetzeko

Iragan hurbilean izandako ondorio laugarrien konponbidez mintzatzen gara askotan bizikidetzari buruz hitz egitean. Azken urteotan maizegi bizikidetzaren alorra alde bakarreko kontakizunen lehiatzat edota iraganean sortutako ondorioen konponketaren esparru itxitzat hartu da. EH Bildurentzat, aldiz, elkarbizitza sustatzeak, ikuspegi humanotik zein politikotik helduta, sekulako potentzialitatea du Euskal Herriaren etorkizunari begira. Izan ere, elkarbizitza sendotzeko egin beharreko urratsek iraganarekin baino gehiago etorkizun hobeago baten eraikuntzarekin izan behar dute lotura, hots, euskal jendartea humanoki zein politikoki hobeto eta era justuago batean biziko den egoera eraikitzea izan behar dute helburu.

Gure proposamenen xedea hau izango da, hortaz: iragana ez errepikatu, iraganari buruzko denon irakurketa autokritikoa sustatu, eta etorkizun justuago baterako baldintzak sortu.

Bi dira oraintxe esparru horretan lehenetsi beharreko gaiak:

- » Biktimak eta memoria. EH Bilduk borondate zintzoa eta garbia erakutsi du: memoria eraikitzeo ekarpena egitera goaz, ez kontakizunaren bataila delakoa elikatzeraz. Ez dira kontakera osagabeak eta interesatuak indartzeko garaiak, memoria betea eta askotarikoa osatzeko baizik. Horregatik, biktimak guztiei bazterketarik edo elkarren arteko asimetriarik gabe zor zaizkien aitortzea eta erreparazioa barnebilduko dituen lerroa garatuko du EH Bilduk bere jardun politikoan zein instituzionalean. Beti eskatu dugun bezala, egia osoaren oinarri irmoetan oinarritutako memoria, justiziarako sarbide askea eta erreparazio integrala, gertatutakoa ez errepikatzea ahalik eta gehien bermatuz.
- » Euskal presoen auzia. Funtsean, kartzelak hustu eta presoak etxeratzeko prozesua bururaino eramateko erronkari eutsi behar zaio, salbuespeneko legeria indargabetzearen bidetik eta kartzela ibilbidea gaur egun bizi dugun eszenatokiaren parametroetara ekarri. EH Bilduk bere lan ildoak izan behar du azken txanpa hori errazteko, kontsentsuak sortuz eta proposamenak eginez edota partekatuz.

4.2. HIRUGARREN NAZIO ERALDAKETARAKO PROZESUA

Lehenago egindako egoeraren diagnosiak honako ondorioa garamatza: eraldaketa nazional berri horren beharrean gaude, eta horretarako, beharrezkoa zaigu gutxieneko osagai komunak izango dituen herri proiektua osatzea zein herri proiektu horren garapenak eskatzen duen gobernantza berria definitzea, gehiago abertzale eta ezkertiarrek gure herriaren aspirazio nazionalak bete eta gizarte berdinezaleago, bidezkoago eta iraunkorrago sortzeko norabidean aktibatze, globalizazioaren indar disolbatzaileak eta neoliberalismoaren kultur homogeneizazioak ez dezaten Euskal Herria irentsi.

Horrenbestez, susperraldi berri bat suposatuko duen beste ziklo historiko bat abiarazi behar dugu. Sendoa eta sakonekoa, arnas luzekoa. Inflexio puntu baten beharraz ari gara euskal naziogintza eraldatzailearen prozesuan, inertzia hautsiko dituen arnasberritzea alor sinbolikoan, hizkuntzan, kulturen, hezkuntzan, alor sozial zein ekonomikoan eta abar. Horrez gain, autogobernuaren dimentsionatze berri bat eta tresna politiko-juridiko burujabeak behar ditugu erronka horiei ekin eta sektore publikoak gidaturiko politika eraldatzaileak egiteko.

Ez dira hamarkada asko Euskal Herria hiltorian izan genuela. Orduz geroztik izandako susperraldiei esker egoera hartatik onik ateratzea lortu genuen. Frankismoak ezarritako heriotza-zigorraren kontra altxatuz piztu zen lehena, euskal kulturaren, hizkuntzaren, hezkuntzaren, nortasunaren eta burujabetzaren aldarrikapenetatik. Modu berean, langile mugimenduaren indartzeak eta mugimendu sozial berrien sendo pizteak, hala nola, auzoak, ekologismoa, gazte mugimendua, feminismoa, internazionalismoa eta intsumisioa, borroka nazionalari zentzu feminista, soziala eta klasekoa gehitu zioten, askatasun nazionala eta soziala uztartuz.

Konsziente izanik Nafarroa Garaia eta EAEren arteko bereizketa instituzionala herri izaeran sortutako arrakala nabaria dela, EAEtik sortutako zenbait tresna – hizkuntzaren eta hezkuntzaren alorrean batik bat – bigarren susperraldi batentzat lagungarri izan zirela ondorioztatu dezakegu, Euskal Herri osoan nazio eraikuntzaren alorrean herri mugimendutik egindako lan andanaren ondorio.

Edonola ere, prozesu autonomikotik EAEen eta Nafarroa Garaian sortutako lanabesek izan zezaketen potentzialtasun nazio-egilea zein estatu-egilea murriztea izan dute helburu Espainiako Estatutik autogober-

nuari aldiro egindako erasoek, eta, horregatik, hain zuzen, baliabide eta dinamika berriak sortzeaz gain, lanabesok indarberritzeak egin beharreko susperraldi berriaren osagaia behar du izan; ezker subiranistarentzat lanabes horiek funtsezkoak baitira nazio eraldaketarako nahiz gehiengo herritar eta sozialen aldeko politika publikoak egiteko.

Hirugarren susperraldi batez ari gara, beraz, nazio eraldaketa hori helburu izango duena. Aurrekoei esker Euskal Herriaren hondamendia saihestu eta herri gisa garatzeko tresnak eskuratu genituen arren, arrisku eta joera kaltegarriak berriro indartu dira, eta erronka berriei aurre egin behar diegu orain. Gainera, ziur gaude askatasun bidean aurrera egiteko nazio eraldaketa hori elikagai politikoa eta soziala izango dugula; fase politikoaren helburuak eskuratzearren eta Euskal Herriko luzerako herri proiektua ongarritzeko abiarazi beharreko jardun kolektiboa izango da.

Hori dena hitzetatik ekintzetara eramateko bi lan lerro indartu behar dira:

- » Nazio elkarrizketa. Nazio eraikuntza eraldatzailearen aro garaikideak herri proiektuaren erreferentzia argi bat behar du, belaunaldi baten perspektiban definitutako herri erronken bidez osatua. Herri erronka horiek izan behar dute nazio eraldaketaren dinamika eta prozesuen katalizatzaile. Fase historiko honetan, gure herriaren gaitasun instituzional, sozial eta komunitarioak lerrotatuz baino ez baita posible izango nazio eraikuntza prozesu emankor bat garatzea, garaiko erronka sozial, ekonomiko eta politikoei arrakastaz helduko diena.

Herri proiektu horren oinarritzako definizioa osatzeak izan behar du EH Bilduren datozen hilabeteetako zeregina, nazio eraikuntzaren aldeko herri eragile eta erakundeekin nazio elkarrizketa bat sustatu ahal izateko, honako helburuarekin: euskal gizarteko eragile askotarikoak sentsibilizatu eta garaiko herri proiektuak modu partekatuan definitzea, horrek nazio eraikuntza eraldatzailearen aro garaikiderako baldintzak erein ditzan.

- » Euskal komunitate nazionalaren pertinenentzia zentzua indartzera zuzendutako dinamika herritarra. Ezkerreko subiranismoa sektore herritar zabalen erreferentzia da, eta hori baliatu behar du nazio identitatea indarberritzeko behetik gorako dinamika herritar baten akuilu gisa.

Burujabetza eta eraldaketa soziala, eskutik.

Espainiaren eta Frantziaren independentzia lortzeak gure subiranotasun-maila handituko du, baina argi dago Euskal Herria ez dela erabat burujabea izango, printzipioz NATO eta EBren politika geoestrategiko, militar eta ekonomikoen eraginpean jarraituko duelako. Gainera, PPEko muturreko eskuina eta muturreko eskuinak Espainiako estatuan baino indartsuagoak dira, eta sozialdemokrazia ahulagoa eta gerrazaleagoa da.

Gaur egun, globalizazio neoliberalak botere publikoak zein ehun komunitarioak ahultzera eraman dituen honetan, botere oligarkikoak nagusi diren mundu honetan, subiranotasuna demokrazia eskuratzeko eta politika neoliberalaren kalteak gainditzeko bidea dugu, herrien burujabetza eta demokraziaren eraikuntza elkarri lotuta baitoaz. Identitate komunitarioa –komunitate aurrerakoi, ireki eta solidario bateko kide izatearen sentimendua– eraldaketa sozialerako prozesuaren abiapuntu eta elikagaia da.

Izan ere, ziurgabetasunaren eta deserrotzearen aurrean, jendeak segurtasun materialak bezainbeste behar ditu komunitateak ematen dizkion segurtasuna, babesa nahiz pertinenentzia sentimendua, eta komunita-

tearekiko atxikimenduak ehuntzen dituen lotura sozialak. Alegia, ezaugarri berdinzaleago eta bidezkoa-go, solidario eta irekietan oinarrituriko euskal identitatea, guretzat.

Burujabetzaren eztabaida bueltan da globalizazio aldi berri batean sartu garelarik, gizarte kohesioa zaindu eta herritarrak babesteko tokiko errealitate sozial, instituzional eta territorialera egokitutako politika publikoek balio erantsia duten garaiotan. Ondorioz, autogobernuaren gaineko eztabaida zuzenki lotua dago herritarren ongizatearekin eta garaiko erronka sozialei herri gisa eman beharreko erantzunen nolakotasunarekin.

Inoiz baino argiago geratzen ari da eraldaketa soziala egingarria izan dadin beharrezkoa dela erabaki guztiak Euskal Herrian hartzeko ahalmena edukitzea, eskubide zein lorpen sozialak areagotzeko beharrezkoa dela herri honek burujabetza izatea, eredu sozial alternatiboak subiranotasun politiko eta ekonomikoa behar dituela. Euskal herritarrok –hemen bizi eta lan egiten dugunok eta euskal herritar izan nahi dugunok– Euskal Herrian erabaki nahi dugu, gai guztien inguruan.

Bestela, Espainiako estatuko indar harremanen arabera sortzen diren politika sozial eta ekonomikoen baldintzatzen dute gure geroa, eta egoera horretan, esan bezala, ez dago eredu sozial berri bat eraikitzerik. Are gehiago, orain artean lortutako aurrerapenak arriskuan egongo dira. Ez da egongo eredu sozial aurreraturik Espainiako estatuaren markoaren menpe azpiratuta; marko hori, gainera, inboluzio erreakzionarioen mehatxupean dagoenean.

Orduan, eskubide sozialen eta bizi baldintza hobetuz alderatu mugimendu eraldatzaileek bat egin behar lukete Euskal Herriaren burujabetza politikoaren aldarrikapenarekin. Edo beste era batera esanda: nazio eraikuntza prozesua garaiko mugimendu emantzipatzaileekin txirikordatua egon behar da, feminismoarekin, ekologismoarekin eta euskaltzaletasunarekin, besteak beste. Horregatik, berresten dugu Euskal Herria dela aldaketa politiko eta sozialerako gure markoa.

Esan gabe doa EH Bilduk balizko demokratizazio saioak babestuko dituela edonon, ultraeskuinari ateak ixteko bere alea jarriko duela eta, oro har, edozein herrirekin elkartasuna eta errespetuzko harremanak izateko bokazioari eutsiko diola, baina horrek denak ez du aldarazten Euskal Herria dela euskal langileentzat eta herri sektoreentzat eraldaketa soziala erdiesteko lan eta borrokarako lehentasunezko eremua.

Nazio proiektuaren eskutik eraldaketa sozialean urratsak egiteko fasea da honakoa; besteak beste, feminismoak eta ekologismoak emandako baliabide teoriko zein praktikoen bidez. Urratsak, hain zuzen, bizi eta lan baldintza duinak bermatzeko, aberastasunaren banaketa bideratzeko, emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna sustatzeko, LGTBI+ pertsonen eskubide guztiak ahalbidetzeko, askatasun sexuala segurtatzeko, arrazismoari eta xenofobiari galga jartzeko, aniztasun kulturala balioan jartzeko, zaintza sistema oso bat eraikitzeke, pentsioak duintzeko, gazteriaren garapena bideratzeko, ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako eredu ekonomiko berrira hurbiltzeko, euskararen herrian euskaraz bizi ahal izateko, herritar kritiko libreak heziko dituen kalitatezko euskal hezkuntza sistema publiko-komunitarioa eraikitzeke, aurrekontu publikoen desmilitarizazioa bultzatu eta politika ekonomiko armamentista murrizteke, aniztasun kulturala balioan jartzeko euskal kultura ardatz izanik, zaintza sistema publiko-komunitarioa eraikitzeke, pentsio publikoak duintzeko, kapazitismoak berezko dituen bazterkeria zein aukera-desberdintasunak erazteke, iraganeko kolonizazio prozesuetan izandako parte hartzearen gaineko irakurketa kritikoa bultzatzeko... Egitasmo askatzaile hori programa politikoan sakontzeko ordua ere iritsi da, aurrerabide horiek Euskal Herritik egin ditzagun.

5. Programa politikoa, herri eraldaketarako proiektuari ekarpena

Programa politikoak ezkerreko subiranistok eta independentistok proiektatzen dugun Euskal Herriaren isla izan behar du eta, zentzu horretan, euskal herritarrei eraiki nahi duguna azaltzeko lanabesa da. Indarrak metatzeko eta gero eta sektore gehiagorekin harremanak eraikitzea ahalbidetu behar digu. Beste garaia batzuetan, EH Bilduren erreferentzia beste faktore batzuetatik etorri da; esate baterako, ziklo aldaketaren garaian, orduan egindako lanagatik lortu genuen erreferentzia hori. Orain, aldiz, gure proposamen gaitasunak eta politika egiteko beste modu bat argiki erakusteak hurbilduko gaitu herritarrengana.

Esan gabe doa programa politikoak gure gobernantza ereduaren ardatza izan behar duela, baina erakundeetan gero eta nabarmenago hartzen ari garen ardurak eta egiten ari garen kudeaketa ez ditugu gure zilborresteari begira bete behar. Horregatik, hain zuzen, gure programa politikoa gainerako indarrekin eta eragileekin harremanak finkatzeko abiapuntua dugu, aipatu nazio elkarrizketaren baitan; baita aliantza politika trenkatzeko oinarria ere, modu malguan eta gardenean. Izan ere, gure lehentasuna ez da EH Bilduren programa propioa modu hertsian osatzea, herri proiektuan parte hartzea eta berau eraikitzea baizik.

Horretarako, Euskal Herria Bildu osatzen duten emakume eta gizonekin arituko gara lanean, gazte zein pentsiodun, emakume, gizon edo ez-bitariko, bai eta Euskal Herriko ekosistema soziala osatzen dutenekin ere, belaunaldi arteko elkarrizketa aktiboak elikatuz. Gainera, etorkizuneko herritartasun feminista, anitza eta askotarikoak eraiki asmo dugu, heterodoxia hegemonikoetatik ihes eginez berdinen arteko herritartasun askeak eraikitzeko.

5.1. HERRI PROIEKTUA

Errealismo, erantzukizun eta eraginkortasun politikoko ariketa batek zera eskatzen du gaur egun: (1) anbi-zio nazionala berreskuratzea eta ekintza politikoa eraldaketa nazional berri baten ikuspegitik pentsatzea; (2) eraldaketa hori euskal gizarteak eta askotariko eragileek adostu eta modu kooperatiboan gidatu behar dutela onartzea, eta (3) gizartearen beraren potentzialtasuna eta indar eraldatzailea direla arrakastaren berme bakarra oso argi izatea.

Badira bi oinarri herri proiektu partekatu baten orubea finkatzeko: Euskal Herria nazio gisa aitortzea eta politika neoliberalak gaingitzea. Euskal Herriak, bere osotasunean, errealtate nazional propioa osatzen du eta hori aukera bat da komunitate inklusibo eta solidario bat eraikitzeko, herritarrak zaindu eta beren esku-bideak babesteko. Halaber, kontsentsu neoliberalak hautsi den garaiotan, nahikoa ebidentzia eta esperientzia historiko dago politika neoliberalak gaingitzea premiazkoa zaigula esateko, gizarte kohesioa bermatuko bada eta planetaren muga biofisikoen baitan sartuko diren gizarte antolamendu berrietara igaroko bagara.

Lurzoru horren gainean eraiki daiteke proiektu herritar partekatu bat, non elkarguneak identifika daitezkeen. Euskal Herriko eragile politiko, sindikal eta sozialen artean desberdintasunak egon badaude, agerikoak dira. Normala da. Baina herri txikia gara, eta behartuta gaude adostasunak topatzera, elkarguneak bilatzera.

Izan ere, herri eraikuntza denboran mantentzen diren politika publiko eta estrategia komunitario koherenteekin baino ezin daiteke gauzatu. Ondorioz, ez dago herri eraikuntzarik ipar adosturik gabe, norabide partekaturik gabe, herri gisa ditugun desafio nagusien gaineko norabide estrategiko argirik gabe. Eta, herri hau plurala den neurrian, norabide estrategiko horien zehaztapena partekatua izan behar da neurri handi batean, halabeharrez.

Sei elkargune identifikatzen ditugu:

»Burujabetza estrategikoa irabazi, herri gisako autosufizientzia emendatze aldera, eta balio erantsi altuko eta lurraldean errotutako industriaren aldeko apustua egin dezagun, horrek eskatzen dituen finantza sistema propioekin batera.

»Ongizate egiturak eraldatu, errealitate soziodemografiko berrian euskal herritarren berdintasuna eta lurraldeen arteko oreka bermatzeko helburuarekin.

»Aztarna ekologikoa jaitsi, krisi ekologikoaren testuinguru historikoan gure ardurak hartzeko.

»Hezkuntza-sistema maila guztietan, formaletan eta informaletan berritu, gure eraikuntza nazionalaren funtsezko zutabeetako bat baita.

»Identitate komunitarioa eta gure kultura-ondarearen garapena sendotu, funtsezkoa baita edozein motatako gizarte-eraldaketari berme nahikoz heltzeko.

»Segurtasun eredu propioa sortu, joera autoritarioen aurrean giza eskubideen errespetua gailen dadin.

Herri proiektuaren erronkak

Herri proiektu partekatu batek, bestalde, epe ertain-luzeko begirada eskatzen du, legeintzaldi batez haragokoa, baita eraldaketaren norabidea zein zentzua ondo finkatzea ere. Eta horretarako denetarako, ezinbestekoa da herri erronkak identifikatzea. Zeri deritzogu herri erronka? Epe ertainean (hamarkada baten perspektiban) erdietsi beharreko herri eraikuntzazko helburu zehatzari.

Uste dugu, gaur, euskal naziogintzak (zentzu zabalean, gizarte zibileko zein esparru politikoko eragileak gehituz) ez duela ipar argirik, krisi estrategikoa bizi duela: sarri inertziak kudeatzen dira, eta ez gara gai indar metaketa sor dezaketenez helburu partekatuak irudikatzeko. Herri erronkak definitzeak argipen estrategikoa ekar dezakeelakoan gaude.

Gure Kongresuari jarraipena emanaz, herri erronkak definitzeko ariketa egingo dugu datozen hilabeteotan, EH Bilduren programa politikoaosatze aldera. Jakin badakigu, hargatik, herri erronken definizioak askotariko eragileen artekoa behar duela izan, behetik gora egin beharreko langintza dela, eta, ondorioz, ez dagokiola EH Bilduri bakarrik. Ekarpen gisa egiten dugu gure programa politikoa osatzeko ariketa hori, euskal naziogintzan diharduten eragileekin batera gogoeta partekatua sustatzeko borondatez. Izan ere, programa politiko horrek ezkerreko subiranismoak eta independentismoak herri eragile askotarikoekin nazio elkarrizketa sustatzea luke helburu, jadanik aipaturiko eraldaketa nazionala martxan jartzeko, eta denon artean irudikatutako herri erronkak gauzatzeko bidean jartzeko. [ikus 1. irudia *Herri proiektu partekatuaren irudikapena: osagaiak eta beraien arteko interrelazioa* - 24. orrialdea].

Irudi horrek herri proiektuaren osagaiak eta beraien arteko interrelazioa marrazten ditu. Sei elkargune irudikatzen dira eta horietako bakoitzean definitzen diren herri erronkak. Erdialdean bost esparru zehaz-

ten dira; herri erronkei bermeeekin heldu ahal izateko lortu behar ditugun baldintza materialak jasotzen dira bertan:

»Gaitasun handiko administrazio publikoa behar dugu eraldaketa nazionalen sektore publikoak jokatzeari nahi dugun rola joka dezan. Sektore publikoak gidatu behar du eraldaketaren norabide estrategikoa.

»Aberastasunaren birbanaketa justua behar dugu bizi baldintzak bermatu, eskubideak segurtatu eta zerbitzu publikoei eusteko. Horretarako, egiturazko zerga-erreforma bultzatuko dugu (IRPF, Sozietateak, BEZ, ondarea,...) errenta handietarako pribilegioen egungo politika eta diru-sarrera txikieneko gizarte-sektoreentzako zigorra errebertitzeko.

»Zientzia eta teknologia sare eraginkorrago baten faltan gaude berrikuntza eta eraldaketa handiko garaiotan ezagutzak gidatu behar baikaitu.

»Iraultza teknologikoaren garaian, digitalizazio etiko eta orekatua behar dugu.

»Euskal lurraldeen arteko lankidetzak estuagoak eta eraldaketa prozesuak elkarrekin pentsatzeak trantsiziorako baldintza hobeak eskainiko dizkigu, "elkarrekin hobe" filosofia barneratuta (ehun industrialean edota elikadura zein energia burujabetzaren kasuan nabarmen, adibidez).

Irudiaren kanpoaldean estatus politikoa irudikatzen da, zeinak baldintza formalak (juridiko-politikoak) eman behar dizkigun herri erronkek eskatzen dituzten politika publikoak garatu ahal izateko.

5.2. BEHETIK GORA DEMOKRAZIAN SAKONTZEKO GARAIA

Krisi politikoak auzitan jarri ditu mendebaldeko demokrazia ordezkatzailerak. Demokrazia liberalaren akidura garaiak bizi ditugu. Gainera, egungo erronka sozialen konplexutasunak agerian utzi ditu goitik beherako ekintza instituzionalaren mugak. Funtsezkoa da demokrazian sakontzea eta ekintza politikoren mugak zabaltzea, gizarte zibileko eragileek eta erakundeek arteko lankidetzak formulak egituratu eta izaera komunitarioko instituzionalitate berriak sustatzeko.

Eraldaketa nazionalak boterea hartzeko estrategia bat eskatzen du; izan ere, eraikuntza nazionalerako edo zein estrategiak estatu eraikuntzaren zerbitzura jarriko diren ahalik eta botere espazio gehien behar ditu eskura. Baina, aldi berean, behetik gorako bigarren hanka bat ere behar du, boterea banatu egingo duena. Udal politika eremu egokia da zio horretan sakontzeko, EH Bildu osatu zuten indarren tradizio municipalistarekin lotura argia duen eraikuntza komunitario-publikoaren arrastoari segitzen diona, gainera.


Izan ere, herri mailako eskala horrek administrazioaren eta komunitatearen arteko elkarlan kooperatiborako aukera eskaintzen du, arazo eta erronka komunei erantzuteko gaitasun kolektiboa lantzeko eskala egokiena baita. Eraldaketa eragingune nagusiak eskala lokalaren gainetik –oso gainetik, gainera– daudela jakinda ere, barneratu behar dugu eskala horrek baduela balio estrategikoa nazio eraikuntzan eta eraldaketa sozialean. Herri mailako eskala indartzearekin batera, eskualde eskalara jauzi bat egitea dagokigu. Erronka jakin batzuei erantzuteko eskualde eskalak aukera gehiago bermatzen dizkigulako eta herrien arteko elkarlana eta eragite gaitasuna handitzen delako baita ere.

Gero eta konplexuagoak diren eta, ondorioz, irtenbide konplexuak eskatzen dituzten gizarte erronken aurrean gaude. Halako erronkei aurre egiteko estrategia komunitarioek eraikuntza nazionalaren behetik gorako hanka indartzea eskatzen dute: gihar komunitario sendoa behar dugu gure nazio eraikuntza garaikidean.

Gaur, segur aski, udalgintza herrigilearen eskutik datorren bultzada komunitario berri baten aurrean gaude. Egiten ari garenaz eta honek Euskal Herriaren burujabetza prozesuan duen potentzialaz jabetzea falta zaigu. Gaur egun, tokiko energia komunitate bat egituratzeak bere garaian ikastola bat antolatzeak izan zezakeenaren antzeko balio politikoa du, adibidez.

Hala bada, EH Bilduren eta EH Bairen arteko aliantzak osatzen duen mugimendu municipalistak erai-kuntza nazional eta sozialaren zerbitzura jarri beharreko bultzada komunitario-publikoaren katalizatzaile behar du izan.

1. irudia - Herri proiektu partekatuaren irudikapena: osagaiak eta beraien arteko interrelazioa



6. EH Bildu, lanabes estrategiko gisa indartu

EH Bilduk euskal herritarren nahi eta gogoei erantzun nahi die. Hori da bere xede nagusia, haien askatasun nahia asebetetzeko eta ongizatea handitzeko lanabes eraginkorra izatea. Aldi berean, EH Bilduren baitan biltzen diren indar eta norbanakoen nahi eta gogoak ordezkatu behar ditu EH Bilduk. Eta, azkenik, gaur egungo Euskal Herrian, indarrean diren joko-arauek jarritako mugekin –muga bidegabeak askotan–, jarduteko prestatu behar du bere burua, joko-arau horiek gainditu eta Euskal Herria beste egoera batera eramateko bada ere.

Enbor beretik hiru adar: koalizioa, indar politikoa eta mugimendua

Horiek horrela, alde batetik, EH Bildu indar politiko ezberdinez osaturiko koalizioa da, eta errealitate hori errespetatu behar da alderdi bakoitzaren izaera eta ekinbidea onartuz. Haien tradizio, balio eta ekimenen bidez egiten duten ekarpena EH Bildu bera indartzeko onuragarria izan dugu eta izango dugu aurrerantzean ere.

Bistan da, aldi berean, EH Bildu harago zabaldu dela eta erreferentzia zuzena dela sektore eta norbanako askorentzat, eta EH Bilduren baitan jardun duen kide askorentzat gurea dela eztabaida eta erabakigune politiko bakarra. Errealitate horrek trinkotu egin du EH Bildu mugimendu politiko gisa, eta bere nortasun propioa sendotu, ezinbestean eta zorionez.

Ez da, ordea, sistemaren baitako indar edo alderdi politiko klasikoa. Indar eraldatzailea da eta, zentzu horretan, burujabetzaren eta aldaketa sozialaren aldeko gainerako indar eraldatzaile guztiekin batera mugimendu politiko eta sozial gisa garatzen ari da.

6.1. AHOTS ETA ERABAKIGUNE POLITIKO BEHINENA

Orain arteko ibilbideak eta garapenak estadio berri batean jarri dute EH Bildu. Horrela, ezkerreko abertzale eta subiranisten lanabes estrategiko gisa xedatu da EH Bildu. Garai berri bat abiarazteko indar metaketarako lehen aliantza bat izatetik burujabetzaren eta eraldaketa sozialaren aldeko estrategiaren zutoin politiko eta ordezkari nagusia izatera iritsi da.

Laburbilduz: ezkerreko independentismoaren eta subiranismoaren erreferentzia eta lanabes politiko/instituzional nagusia da EH Bildu, prozesu autozentratu eta mailaz mailakoaren norabideratze politikoan eta prozesu horren nolaketasunari buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko. Horregatik, EH Bilduk ezkertiar eta soberanista guztien tresna zabal gisa indartzen jarraitzeko apustua egiten du.

Betebehar horretan, nazio ikuspegia eta ekinbidea ezinbestekoa dugu, eta horregatik estrategikoa da EH Bairekin dugun goren mailako aliantza. Bi antolakundeen harremanari esker lurralde osoan bateratasunez jarduteko aukera dugu, beti ere norberaren berezitasunen onarpen eta errespetutik. Emaitzak begien bista-koak dira, bai batean zein bestean. EH Baiko militanteen eta EH Bilduko arteko hartu-emana bultzatuko da, Iparraldeko egoeraren eta EH Bairen strategiaren eta inplantazioaren berri izateko helburuarekin eta militanteen eta komunitate politikoaren arteko erlazioak hobetzeko helburuarekin.

Gainerakoan, EH Bildu indartu behar dugu ezkerreko subiranismoak hegemonia eskura dezan, horren ideiak eta egitasmoak zabal eta sakon erro daitezen euskal gizartean eta erakundeetan. Hegemonia helburua izan arren, gehiengo instituzionala hori lortzeko tresna gisa ulertzen dugu. Izan ere, gehiengo instituzionala ez da bere horretan helburua, aldaketa politikoak eta sozialak termino aurrerakoietan eragiteko bitartekoa baizik.

Alimaleko lana dugu egiteko eta eginahal horri ezin zaio boluntarismotik ekin. EH Bilduk bere gaitasunak hantitu eta azkartu behar ditu. Bere lurralde presentzia herriz herri sendotu behar du, herritar ahaldundu eta aktibistak saretuz, erabaki marko nagusiak politikoki trinkotu behar dira, ezagutzarako eta analisirako tresnak sortu behar dira, hausnarketa estrategikoak eta proposamen politikoak lantzeko lan eremu osagarriak eratu behar dira, formazio politikoa zein teknika eskaini behar da... horrek denak plan koherente eta eraginkor bat izan behar du.

6.2. EKINTZA POLITIKOA XEDATZEKO OSAGIAK

Txosten politikoaren eztabaidatik ondorio orokorrak aterako ditugu, eta hortik aurrera EH Bilduren ekintza politikoa lurreratzen joango da. Zentzu horretan, hurrengo urratsak errazte aldera, hainbat lan eremuri buruzko zertzeladak ematea komeni da.

- » Erakundeetan lana. Lehen mailako eginkizuna da EH Bildurentzat, bai herritarren eguneroko beharritzanei erantzuteko, baita irismen sakonagoko erronka politikoak bideratzeko ere. Txostenean zehar aipatu dugun lez, udalgintza giltzarri da herri proiektua behetik gora eraikitzeke, gainera goi mailako erakundeak gobernatzeke ere prestatu behar dugu gure burua datorren hauteskunde zikloi begira. EH Bilduren ustez, erakunde multzoa talde zabala da, eta izaera publikoa dutenak ez ezik, pribatuak izanik eskuordetzan funtzio publikoak betetzen ari direnak ere biltzen ditu. Horietan ere gure jarrera politikoa bultzatzeko asmoa dugu, herrialdearen erabateko eraldaketa lortzeko.
- » Jauzi politikoa. Datozen urteetan jauzi politiko-juridiko baten bila goaz, 4.1 atalean jasotzen diren funtsezko bost eremuetan indarra eginez.
- » Naziogintza eraldatzailea: herri-egitasmoa xedatzera zuzenduriko nazio elkarrizketa eta nazio identitatea sendotzeko zuzenduriko dinamika herritarra (4.2 atalean jaso) gure ekimen politikoaren erdigunera ekarriko ditugu.
- » Elkarbizitza eta memoria: giza eskubide guztien errespetuan eta memoria osoaren eraikuntzan oinarrituko den elkarbizitzaren aldeko ahalegina gure lehentasunetan jarriko dugu, egia osoko zutabe irmoetan oinarritua eta justiziarako oztoporik gabeko sarbidea eta erreparazio integrala ematen duena.

Horretarako gutzirako lan molde hauek indartzea dagokigu:

- » Kaleko mobilizazio eta ekimenak. Esan bezala, EH Bilduk mugimendu izaera du. Horregatik, kaleko ekintza eta mobilizazio jardura ere badu, eta izan beharko du aurrerantzean ere bere ildoak garatzeko.
- » Ideien lehia. Borroka leku nagusia da, besteak beste azken urteotan munduan zabaltzen ari den hainbat izurrite ideologikotik babesteko. Neoliberalismoak oro har eta ultraeskuineko indarrek hedatzen dituzten ideien aurrean, gure proiektu politiko eraldatzailearen printzipio eta ideien defentsa etengabea egitea funtsezkoa da.
- » Aliantza politika. Gure prozesuak gehiengo zabalak behar ditu. Ez dago beste biderik, jendearen atxikimendua, parte-hartzea eta konpromisoa. Zabalkunde hori egiteko bidaide eta konplizitateak ezinbestekoak dira, eta betekizun horri erantzuteko, nahitaez, aliantza politika norabide argian eta malgutasunez erabili beharreko tresna estrategikoa dugu, lehentasunez, burujabetzaren aldeko eta eraldaketa sozialaren aldeko indarrekin.
- » Harreman eta elkarrizketa gaitasuna; negoziazio ahalmena. Akordioek, elkarlan dinamika bateratuek edo kanpo diplomaziak logistika zabala behar dute. EH Bilduren emaitzak ez dira txikiak izan urteotan, baina hasitako bideari jarraitzeak eta are irismen handiagoa emateak lehentasuna behar dute izan.

7. Azken gogoeta

Amaitzeko, hausnarketez eta teorizazioez harago, txosten honek jarraipen erabilgarria izan dezan bestelako garapen praktiko bat izan behar du. Apustu politikoen egikaritzeak antolakuntza egokipenak eta baliabideen hornikuntza eskatzen ditu, derrigorrean. Hori ere bideratua utziko du oraingo Kongresuak.

Horretarako EH Bilduk bere burua prestatu behar du. Horretan ere ondorio ez ohikoak izan behar ditu Kongresuak, EH Bilduren egitura eta lan taldeak perspektiba luzearekin finkatu behar baititugu, fase osoan ardurak beteko direla segurtatzeko, belaunaldi berrien inkorporazioa eta haiekin transmisioa errazteko eta, oro har, prozesuaren mesedetan jardungo duen EH Bildu lanabes eta erreferentzia politiko estrategiko gisa indartzeko.

Antolok funtzi

Antolaketa eta
funtzionamendua



1. Abiapuntua

Lerro hauen helburua da antolakuntza eta funtzionamendu arloan ditugun erronka nagusiak zein, erronka horiei erantzute aldera, arlo horretan egin beharreko egokitzapenak zehaztea.

Egokitzapenez mintzo gara jauzia, antolaketa-ereduari dagokionez, duela zortzi urte egin genuelako, noiz eta egun indarrean den antolaketa-paradigmaren aldeko apustua egin genuen; baita ere antolaketa-paradigma hori egokitzat eta eraginkortzat dugulako eta, horiek horrela, gure asmoa, aldaketa sakonak ez, baizik eta berau hobetuko duten egokitzapenak egitea delako. Bide batez, lero hauetan egokitzapen horiek baino ez ditugu jaso, aipatu antolaketa-paradigmaren gainerako alderdiak erreproduzitzen ditugularik.

Zortzi urteotan I. Kongresu hartan “EH Bildu berria” deitu genuen horren eraikuntza-bidean asko aurreratu dugu. Hala, EH Bildu, koalizio hutsa izatetik, militantzia, egitura eta erabakigune propioak dituen subjektu politikoa izatera pasa da. Halaber, praxi politiko integraldun subjektu batean eta, beraz, gorputz instituzionalaz haratagoko antolaketa-errealitate eta are mugimendu politiko batean bilakatzeko bidean urrats handiak egin ditugu, tokiko mailan Udal Taldeaz haratago antolatzeke zein masa mobilizazioak gure jardueraren ezinbesteko osagai bilakatzeko urratsak horren lekuko. EH Bilduk jauzia egin du bai gaitasun propositiboan baita profil instituzionalean ere; egun herri proiektu ongi oinarritua daukagu, baita, oro har, gorputz instituzional aski gaitu bat ere. Eta gauza bera esan dezakegu hauteskunde lanetari buruz; arian-arian, EH Bildu hauteskunde makinaria ahaltsua bilakatu da, azken hauteskunde-zikloaren esperientzia eta emaitza horren lekuko. Guztiarekin, egun, EH Bildu errealtate politiko-organizatibo kontsolidatua da, Euskal Herriaren osotasuna aintzat hartuta lehen indar politikoa, eta gobernu-alternatiba argia.

Edonola ere, oraindik ere asko da, arestian aipatu antolaketa-paradigmaren inplementazioa bururaino eramateko, egiteko dagoena.

Bestalde, azken urteotan sortu ditugun baldintzek, baita horien ondorioz parez-pare ditugun aukerek eta erronkek ere, antolakuntza eta funtzionamendu arloan jauzi berri bat egiteko beharraren aurrean jarri gaituzte.

Bada, hasieran esan bezala, hori da segidan datozen lerroen helburua: hala antolakuntza eta funtzionamendu arloan ditugun erronka nagusiak nola, erronka horiei erantzute aldera, EH Bilduren antolaketa-ereduan eta funtzionamenduan egin beharreko egokitzapenak zehaztea.

Bukatzeko, aipatu egokitzapenetako batzuk Estatutuen egokitzapen puntuala eskatuko dute. Hala, bada, antolaketa eta funtzionamendu arloko egokitzapenok onartuz gero, beraien itzulpen estatutarioa Estatutuetan txertatuko da, eta gauza bera egingo da onartuak izan litezkeen zuzenketen kasuan ere. Guztiarekin, Estatutu egokituak, Kongresu-prozesuaren bigarren fasean, zuzendaritza-organoak berri-
tzeko egingo den bozketan berretsi beharko dira.

2. Antolaketa eta funtzionamendu arloko erronka nagusiak

2.1. KUDEAKETA INSTITUZIONALEAN GOI MAILAKO ARDURAK HARTZEKO PRESTATU

Txosten honen atal politikoan esan bezala, azken urte luzeetako ibilbide arrakastatsuen ondorioz, kudeaketa instituzionalean goi mailako ardurak eta, ondorioz, herri honen lidergoa hartzeko atarian egon gaitzke. Edonola ere, horiek dira gure bokazioa eta xedea.

Bada, horrek, hemen eta orain, hiru gauza eskatzen ditu, nagusiki:

- Programa politikoaren zehaztapenean sakontzea.
- Gobernu-arduretarako militanteen trebakuntzan sakontzea.
- Eztabaida batzuk aurreratu, gai estrategiko batzuen bueltan kidegoa trinkotu eta, oro har, borroka ideologikorako antolakundearen gaitasuna handitzea.

Lehen zereginak, bere aldetik, zera eskatzen du: batetik, Programa politikoaren eraikuntza sistematizatea; bestetik, Programa politiko horren zehaztapenean beste maila bat igotzea; eta azkenik, atal politikoan aipatutako herri-erronkei erantzungo dieten politika publiko estrategikoen diseinua egitea [ikus 2.5 azpi-puntua].

Gobernu-arduretarako militanteen trebakuntzak, berriz, eskatzen du kidegoaren trebakuntza sistematizatu eta orokortzea, baina baita pertsonarik kualifikatuena EH Bilduren gobernantza-eredura erakartzea ere. Hori da, izan ere, 2.5 azpi-puntu aipagai ditugun lankidetzaren estrategikoaren eta haren eskutik jorratu beharreko lan-prozesu kualifikatu eta espezializatuen helburuetako bat.

Kidegoaren trebakuntzari dagokionez, koadro politiko-instituzionalak trebatu behar dira, bai, baina ez soilik ikastaro, mintegi eta halakoen bidez; baita beren ibilbide politiko-instituzionalaren eta, beraz, praktikaren beraren bidez ere. Izan ere, ibilbide horien planifikazioa eta sistematizazioa da, kidegoaren trebakuntzaz ari garela, azpi-puntu honek seinalatzen duen helburuaren bidean une honetan eskuartean dugun erronka nagusia.

Azkenik, esan bezala, eztabaida batzuk aurreratu, gai batzuen bueltan kidegoa trinkotu eta, oro har, borroka ideologikorako antolakundearen gaitasuna handitu beharra dago, batetik, oro har, gure proiektu politikoaren garapenak hala eskatzen duelako; bestetik, kudeaketa instituzionalean goi mailako ardurak hartu orduko, hala establishment politiko, ekonomiko eta mediatikoaren eraso nola kudeatu beharko ditugun kontraesanak ez baitira nolanahikoak izango. Bada, horrek eskatzen du, arestian esandakoez gain, batetik, egituraren gaitasun politikoa areagotzea, eta, bestetik, EH Bilduren jardura sozio-politikoaren garatu eta al-bait indar handienarekin zabaltzea [ikus 2.3 eta 2.4 azpi-puntuak].

2.2. DAGOENeko ZUZENTZEN DITUGUN INSTITUZIOETAN HERRI PROIEKTUAREN GARAPENEAN JAUZIA EGIN

Atal politikoaren 5.2 azpi-puntuaren esan bezala, Udalgintza estrategikoa da. Estrategikoa da parez pare ditugun erronka kolosalen aurrean esku hartu behar den lehen eskala tokiko eskala delako. Estrategikoa da udal mailak, herritarrengandik hurbilen dagoen maila instituzionala izaki, nazio eraldaketarako, baita demokrazia parte-hartzaile eta are zuzeneko espresio ezberdinak esperimentatzeko ere, aukera paregabeak eskaintzen dituelako. Estrategikoa da udala EH Bilduren politiken erakusleho delako eta, horrenbestez, jendarte-sektore berriak ezkerreko subiranismoari eta independentismoari atxikitzeko funtsezkoa delako. Estrategikoa da, indar municipalista izaki, EH Bilduren identitatearen zutoinetako bat delako. Eta estrategikoa da, gaur gaurkoz, udala, udalez gaindik hainbat erakunderekin batera, kudeatzen dugun maila instituzional bakarra delako eta, horrenbestez, ildo politiko orokorraren garapenerako funtsezkoa delako.

Bada, Udalgintzan jauzia egite aldera, lau dira esku artean ditugun erronka edota zeregin nagusiak:

- Udalgintza koherentizatu eta ildo politiko orokorrari lotzea. Batetik, EH Bilduk Udalgintzan jarduteko norabide argi bat finkatu behar du, udalerri guztiak lotuko dituen gutxieneko lurzoru edo orube amankomun bat. Bestetik, udaletan jarduera politiko-instituzionala indartu beharra dago; Udalgintza ildo politiko orokorrarekin lerratu eta uztartu. Udalek EH Bilduren ildo politiko orokorraren garapenean subjektu aktiboa izan behar dute.
- Udalgintza herrigilea eta haren baitako prozesu herrigileak hedatzea. Erronka da gero eta udalerri gehiagok, behin kudeaketa ona bermatuta, herritarren parte-hartzea eta entzuketara aktiboa oinarri dituen kudeaketa hurbila eta are Udalgintzaren estadiorik eraldatzaileena den Udalgintza herrigilea inplementatzea. Baita, horretarako, udalerriek tokiko plan estrategikoa, entzuketara aktiborako berrazko ariketak zein Udalgintza herrigilerako bitarteko behinena diren prozesu herrigileak jorratzeko beharrezko ezagutza eta gaitasuna eskuratzea ere.
- Hiriguneetako jarduera eta egitasmo municipalistak definitzea. Ezkerreko subiranismoak eta independentismoak hiriguneetan eta, oro har, lurraldearen luze zabalean izan behar duen hazkundea estuki lotua dago hirigune bakoitzean gorpuztu beharreko egitasmo municipalistarekin. Hiriguneak eraldaketa- eta askapen- prozesuaren motor bilakatu behar ditugu.
- Tokiko programaren eraikuntza sistematizatzea. Programa politikoaren eraikuntzak bezala, Tokiko programaren eraikuntzak lan-prozesu iraunkorra izan behar du. Horretarako, urteroko Konferentzia Municipalistaz gain, urtean zehar gai espezifikoaren lanketa egin beharra dago. [ikus 1. irudia *Ildo politikoaren / Programa politikoaren lanketa-zikloa* - 51. orrialdea].

2.3. EH BILDUREN JARDUERA SOZIO-POLITIKOA GARATU

Azken urteotan sekulako indarra bildu du EH Bilduk. Milaka militante eta hautetsi; ehunka milaka boto. Indar hori guztia atal politikoan aipatutako nazio eraldaketa berri horren zerbitzura jartzen asmatu behar dugu orain. Batetik, indar hori estrategikotzat jotzen ditugun herri dinamika eta egitasmoetan inbertituz. Bestetik, EH Bilduren beraren jarduera indartuz eta zabalduz.

Esana dugu: EH Bildu praxi politiko integraldun subjektua da. Edo gauza bera dena: borroka instituzionalaz gain, borroka ideologikoa eta mobilizazioak iraunkorki jorratu behar ditu, atal politikoaren 6.

puntu esan bezala, borroka ideologikoa eta mobilizazioak funtsezkoak baitira hegemonia subiranista eta independentista-eraldatzaileraren eraikuntzarako.

Borroka ideologikorako bi eremu nagusi bereizten dira egun: kalea eta esparru digitala. Biak ala biak dira guretzat baliagarriak herritarrekiko komunikazio zuzena praktikatu eta ezkerreko independentismoaren egitasmo politikoaren sozializaziorako. Izan ere, guk ez daukagu eta ez dugu izango ez ohiko komunikabide hegemonikoen babesik, ez eta gure diskurtsoa modu gardenean azaltzeko erraztasunik. Horregatik, gure ahalegina biderkatu eta eraginkortu behar dugu komunikazioaren balio estrategikoenari ahalik eta etekin handiena ateraz. Hala, kalean egoteko eta eragiteko moduetan bezala, eremu digitalean presentzia eta jarduna modu antolatuan jorratzeko ildo garatuko dugu. Hau, ezinbestean, EH Bilduk berez duen parekorik gabeko errotze/barneratze sozial-territoriala eta parekorik gabeko konpromiso militanteari esker egingo dugu. Guztiarekin, EH Bilduk joan-etorriko komunikazioa, alegia, elkarrizketa iraunkor bat jorratu behar du herritarrekin, batetik, bere mezuak herritarrengana albait erarik zuzenenean iritsarazteko; eta, bestetik, eta batez ere, herritarren kezka, behar, interes zein asmoen berri zuzena izateko, alegia, jendea entzuteko. Jendea entzuten duten subjektuak izan behar dute bai EH Bilduk kudeatzen dituen udalek bai EH Bilduk berak. EH Bildu markaren zutoinetako bat izan behar du horrek.

Bestalde, ekarpen militanterako aukerak biderkatu eta potentzial militante guztia askatu behar du EH Bilduk. Izan ere, sarreran esan bezala, militantzia kopuruan jauzi handia egin dugu, bai; baina, egiari zor, militantziaren aktibazioan ez dugu behar beste aurreratu. Horiek horrela, EH Bilduren eskaintza militanteak jardura instituzionalari loturikoa baino zabalagoa eta askotarikoagoa behar du.

Guztiarekin, bere jardura sozio-politikoa zabaltzeko eta sakondu behar du EH Bilduk, hala nazio mailan nola tokiko planoan. Eta, modu horretan, albait kide gehien aktibatu eta ildo politikoaren osotasunaren gauzapenean aktibo bilakatu.

Bada, horretarako guztirako, honako hiru gauzak egin beharra dago, besteak beste:

- Masa mobilizazioei (mobilizazio nazionalak, Aberri Eguna...) jarraipena eman.
- Kanpaina politiko-komunikatiboak jorratu, komunikazio kontzientziazailerako ariketa masibo gisa ulertuta/ezaugarrituta, atal politikoaren 4.2 azpi-puntu aipatutako dinamika herritarra barne.
- Entzuketarako aktiborako berariazko ariketak jorratu/orokortu.

2.4. EGITURAREN GAITASUN POLITIKOA AREAGOTU

Funtsezkoa da egiturak, baita gorputz militante osoak ere, hala estrategiaren oinarriak nola unean uneko ildo politiko orokorra behar bezain barneratuta izatea. Izan ere, egituraren eta are gorputz militante osoaren egitekoa da oinarri soziala politikoki kokatuta izatea, baita unean-unean sor litezkeen zalantzak argitzea ere.

Horretarako, ildo politikoaren lanketa eta transmisioaren sistematizazioan sakondu beharra dago, baita beronen lanketa kolektibizatu ere. Alegia, ildo politikoaren eraikuntzan kidego osoa inplikatu beharra dago; bi arrazoiengatik egin ere: batetik, ildo politiko orokorra barneratzeko erarik eraginkorrena beronen eraikuntzan parte hartzea delako; eta, bestetik, parte hartze hori hil hala bizikoa zaigulako ildo politikoarekin asmatzeko edo, bederen, huts egiteko arriskua minimizatzeko. Horrenbestez, kidego guztiaren ekarpena behar beharrezkoa da: egiturako kideona, herrietako militanteena, instituzio ezberdinetako hautetsiena... Guzti-guztiena.

Bada, horretarako, ildo politikoaren lanketa eta transmisio-zikloa deritzoguna egonkortzeko eta berau jorratzeko bitarteko berriak sortzeko apustua egiten dugu, hala nola Konferentzia Politikoaren ezaugarritze berria edo Eskualdeko Tokiko Arduradun Politikoen Guneak [ikus 4.1 eta 4.2 azpi-puntuak eta 1. irudia *Ildo politikoaren / Programa politikoaren lanketa-zikloa* - 51 orrialdea]].

2.5. PROGRAMA POLITIKOAREN ERAIKUNTZA SISTEMATIZATU

“Programa politikoa etengabe landu behar du EH Bilduk: eztabaidatu, erabaki, inplementatu, berriz ere eztabaidatu...”. I. Kongresuko Oinarrizko ponentzian esan eta txosten honen atal politikoan berretsi dugun bezala, Programa politikoaren eraikuntzak bi ezaugarri nagusi izan behar ditu: batetik, prozesu iraunkorra izan behar du; bestetik, eta batez ere, prozesu parte hartzailea izan behar du. Izan ere, ildo politikoaren eraikuntzaren kasuan bezalaxe, parte hartze hori, are arestian aipatu entzuketa aktibo eta elkarrizketa iraunkor horiek, hil ala bizikoak zaizkigu Programa politikoa albait ordezkatzaileena eta, aldi berean, albait eraldatzaileena eta eraginkorrena izan dadin.

Bada, azken urteotako esperientzia oinarri, berau sistematizatu eta eraginkorrago bilakatzeko helburuarekin, Programa politikoa eraikitza zuzenduriko lan-dinamika iraunkor eta parte hartzaile horren baitan bi dimentsio bereizteko apustua egiten dugu:

- Batetik, arlo edo gai ezberdinen bueltan EH Bilduren posizio edota marko politiko-ideologikoa finkatzera eta kidegoa haren bueltan trinkotzera eta borroka ideologikoari begira ahalduz zuzenduriko hausnarketa/eztabaida prozesu estrategikoak barne-hartuko dituen.
- Bestetik, hala EH Bilduren Programa politikoak behar dituen jauzi programatikoak identifikatu eta jorratzera nola lehen dimentsioaren kasuan aipatutako arlo edo gai ezberdinen gaineko posizio edo marko politiko-ideologiko horiek politika publiko konkretuetan itzultza zuzenduriko lan-prozesu kualifikatu eta espezializatuak barne-hartuko dituen.

Lehen dimentsioari dagokionez, hausnarketa/eztabaida estrategikoak egiteko moduari dagokionez aro berri bat abiatzeko apustua egiten dugu. Eztabaida horiek modu iraunkorrean jorratuko ditugu, bitarteko edota mugarri ezberdinak baliatuz (Konferentzia Politikoak, nagusiki, baina baita Batzar Nagusi arruntak edota espresuki antolaturiko batzar zein mintegi espezifikak ere) eta hartarako prozedura konkretu bat finkatuz.

Bigarren dimentsio horretan aipatutako jauzi programatikoen ekoizpenerako, berriz, lankidetzaren estrategikoa jorratuko dugu eragile kualifikatu ezberdinekin, jauzi horiek ekarpen profesional eta aditu handia eskatuko dutenez gero; eta hori, dagokion lan-eremuko eragileen eta kide adituen ekarpenak ere aintzat hartuz, noski. Esan gabe doa: jauzi programatiko horiek gune administratibo eta eskala instituzional guztietarako (EAE, NFE, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak eta tokiko erakundeak) itzulpena barne-hartuko dute.

Azkenik, Mahai Politikoari egokituko zaio, programa idazkariak proposatuta, erabakitzea zer eztabaida prozesu eta zer jauzi programatiko behar diren, baita hala eztabaida-prozesu horiei begirako prozedura zehatzak nola jauzi programatiko horien elaboraziorako lankidetzaren egitasmoak onartzea ere. Eztabaida-prozesu eta lankidetzaren egitasmo horien koordinazioa, berriz, programa idazkariaren zeregina izango da.

2.6. TOKIKO DINAMIKA ETA EGITURA INDARTU

Tokiko mailan daude EH Bilduren zimenduak. Tokiko mailan (zehazki, udalerrietan) jorratzen dugu Udalgintza. Tokiko mailan gauzatzen dugu, halaber, azken hori bezain estrategikotzat jotzen dugun

eta orain nabarmen indartu nahi dugun jarduera sozio-politikoa. Tokiko mailan, nagusiki, erakartzen, antolatzen eta trebatzen dugu militantzia. Eta tokiko mailako jarduera horrek, bereziki, ematen dio EH Bilduri mugimendu izaera. Horiek horrela, tokiko dinamika eta egitura indartzeak berebiziko garrantzia dauka; are gehiago, arestian esan bezala, kudeaketa instituzionalean goi mailako ardurak zein, ondorioz, herri honen lidergoa hartzeko atarian gauden honetan.

Bide horretan, 2.3 azpi-puntuan aipatutako jarduera sozio-politikoa garatzeaz eta tokiko egituren oinarritzko markoak (Tokiko Batzarra, Tokiko Idazkaritza...) hedatzeaz gain, udalerri, herri eta auzoen egitekoak ondo zehaztea da eskuartean dugun lehen zeregina, helburua hala dinamika politikoan nola ardura konkretuetan ahalik eta kide gehien inplikatzeko baita, eta, horretarako, egitekoak albait zehaztasun handienera eramatea funtsezkoa baita.

Bada, egiteko horiek hiru dira:

- 2.2 azpi-puntuan hizpide izan dugun Udalgintza.
- 2.3 azpi-puntuan jorratu dugun jarduera sozio-politikoa.
- Plan Politikoaren lanketa eta transmisioa.

Lehen zereginari dagokionez, erronka nagusia da, 2.2 azpi-puntuan esan bezala, gero eta udalerri gehiagok Udalgintza herrigilea jorratzea, baita, horretarako, tokiko plan estrategikoak, entzuketako aktiborako berriratzeko ariketak eta prozesu herrigileak hedatzea ere. Esan gabe doa, horretarako guztirako, egiturak aholkularitza eta bitarteko zehatzak eskainiko dituela; nagusiena, Konferentzia Munizipalista.

Bigarren zereginari dagokionez, 2.3 azpi-puntuan hizpide ditugun mobilizazio eta kanpaina politiko-komunikatibo nazional eta lokalak zein, zehazki, atal politikoaren 4.2 azpi-puntuan aipatutako behetik gorako dinamika herritarra garatzea da erronka.

Azkenik, hirugarren zereginari dagokionez, erronka da bai Plan Politikoaren elaborazioan bai Konferentzia Politikoan kidegoaren parte hartzea handitzea, tokiko plangintzen elaborazioa eta jarraipena sistematizatzea eta ildo politiko orokorra oinarri sozial zabalarekin partekatze bitartekoak, hala nola, solasaldi irekiak, orokortu eta egonkortzea.

2.7. HAUTESKUNDEEN LANKETA SISTEMATIZATU

“Hauteskundeen lanketa ere modu iraunkorrean egin behar da: analisi demoskopikoak, hautagai ezberdinek izan lezaketen harreraren eta arrakastaren neurketa, zerrenden osaketa, kanpainen prestaketa... EH Bildu berria hauteskunde makinaria potentea izan behar da”, esaten genuen I. Kongresuko Oinarritzko ponentzian. Bada, horiek guztiak egin ditugu, azken hauteskunde zikloko esperientziaren eta emaitzaren argitara, arrakasta handiz egin ere.

Hauteskundeen lanketa hori modu iraunkorrean egitea eta sistematizatzea da orain erronka; alegia, izan litekeen aurreikuspen eta aurrerapen handienarekin jokatzeko.

Horretarako, hauteskundeak modu iraunkorrean lantzeko ardura Antolakuntza Idazkaritzaren baitan kokatzearen eta akordeoi erako dinamika bat egituratzearen aldeko apustua egiten dugu. Akordeoi erako dinamika bat, hauteskunde garaian egitura zein kidego osoak horretan jardun behar duelako, baina hauteskundeak iragan orduko, kide eta lantalde bakar batzuk hurrengoei begirako lanak aurreratzen aritu behar direlako.

3. Antolaketa eta funtzionamendu arloko egokitzapenak

3.1. ARDURA NAGUSIAK, SAILAK ETA HAIEN ARTEKO HARREMANAK

Hemendik aurrera, bost ardura nagusi eta bost sail izango dira. Ardura nagusiak dira erakundearen funtzio organiko nagusiak, eta sailak funtzio nagusi horien gauzapeña bermatu behar duten eta, beraz, hein batean edo bestean, funtzio nagusi horiek guztiak zeharkatuko dituzten ekipo teknikoak/baliabideak. [ikus 2. irudia *Ardura nagusiak, sailak eta haien arteko harremanak* - 51 orrialdea]

Bost ardura nagusi eta bost sail horietako bakoitzak arduradun bat izango du. Arduradun horietako bakoitzak bere funtzioak burura eramateko behar beste azpi-idazkaritza/sail edota lantalde eratuko ditu.

Bost ardura/arduradun nagusiak eta haien zereginak izango dira:

- Idazkaritza/Idazkari Orokorra.
 - » Estrategia politikoaren diseinua eta jarraipena, horretarako, besteak beste, aurreko Kongresuan martxan jarritako Estrategia Batzordeaz baliatu ahal izango delarik.
 - » Eguneroko dinamikaren gainbegiratzea.
 - » Antolakundearen ordezkari eta bozeramaile gorena.
- Antolaketa Idazkaritza/idazkaria.
 - » Barne koordinazioa.
 - » Barne koordinazioa.
 - » Antolakundearen etengabeko berrikuntza/hobekuntza.
 - » Pertsonen kudeaketa (kidegoaren ibilbideen planifikazioa, gatazken kudeaketa zein kidegoaren zaintza...).
 - » Plan feministaren inplementazioa.
 - » Baliabide ekonomiko eta materialen kudeaketa.
 - » Arlo juridikoa (afiliazioaren jarraipena barne).
 - » Hauteskundeak.
 - » Euskara-planaren eta hizkuntza-irizpideen inplementazioa.
 - » Trebakuntza-beharren eta -baliabideen kudeaketa, eraketa arduradunarekin elkarlanean.
 - » Baliabide demoskopiko eta prospektiboen kudeaketa.

- Ekintza politikoko Idazkaritza/idazkaria.
 - » Estrategia politikoaren deklinazioa ekintza politiko, sozial eta instituzionalean.
 - » Ekimen politiko, sozial eta instituzionalak landu epe labur, ertain eta luzera begira, horretarako, besteak beste, aurreko Kongresuan martxan jarritako Ekintza Politiko, Sozial eta Instituzionaleko Batzordeaz baliatu ahal izango delarik. Hemendik aurrera, batzorde hori, programa idazkariaren bueltan beharrez, ekintza politikoko idazkariaren bueltan antolatuko litzateke, eta, orain arte bezala, ekintza politiko, sozial eta instituzionaleko proposamenak lantzeaz arduratuko litzateke.
- Programa Idazkaritza/idazkaria.
 - » Programa politikoaren eraikuntzari zuzenduko zaion lan-dinamika iraunkorraren bi dimentsioen planifikazioa eta dinamizazioa [ikus 2.5 azpi-puntua].
 - » Arlokako Idazkaritzen koordinazioa [ikus 3.3 azpi-puntua].
 - » Institutuzio nagusietako hauteskunde-programen elaborazio prozesuan aholkularitza lanak egitea, eta berauek gainbegiratzea, koherentzia programatikoa gordetzen dela bermatuz.
- Harremanen Idazkaritza/idazkaria.
 - » Harreman politikoaren kudeaketa: haiei begirako helburuak eta irizpideak finkatu eta haiengandik eratorritako informazioa eta kapital erlazionala kudeatzea.
 - » Harreman politikoetatik jasotako informazioa aintzat hartuta, ekimen politikoak proposatzea.

Bost sailak/sailetako arduradunak eta haien zereginak izango dira:

- Politika Instituzionaleko Saila/arduraduna (institutuzio nagusiak, alegia, udalak zein udalez gaindiko tokiko erakundeak ez beste instituzio guztiak barne-hartzen dituen).
 - » Ekintza instituzionalaren koordinazioa.
 - » Ildo politikoaren dinamizazioa instituzio nagusietan.
 - » Ekimen politiko-instituzionalen lanketa, ekintza politikoko idazkariarekin batera.
 - » Egunerokotasun instituzionalak eskatzen dituen edukien sorkuntza, horretarako, instituzio nagusi ezberdinetan arlo bakoitzean ditugun kide aditu/aritu ezberdinen ekarpena baliatuz eta koordinatuz, programa idazkariarekin zein arlokako idazkariarekin koordinazioa bermatuz, betiere.
 - » Udalgintzarekin elkarlana bermatzea.
 - » Politika instituzionaleko arduradunaren lantaldea herrialdeko politika instituzionaleko arduradunek osatuko dute.
 - » Horrez gain, politika instituzionaleko arduradunak instituzio nagusietako koordinatzaileekin hartu-eman iraunkorra izango du.

- Udalgintza Saila/arduraduna (udalak -hiriburuak barne- zein udalez gaindiko tokiko erakundeak).
 - » Udalgintzaren koordinazioa eta Udalgintza herrigilearen sustapena.
 - » Ildo politikoaren dinamizazioa udaletan. Horretarako, herrialdeko udalgintza eta eraketa arduradunek elkarlanean jardungo dute, batetik, haien artean, eta, bestetik, eskualdeko eraketa eta udalgintza arduradunekin. Aukera dagoen kasuetan, bi ardura horiek pertsona berdinak beteko ditu. Kasu batean zein bestean, ildo politikoaren osotasuna dinamizatuko dute, tokiko eta herrialdeko planoen arteko noranzko biko komunikazioa jorratuz eta Tokiko Idazkaritzei eta Udal Taldeei, biei ala biei, aholkularitza politikoa eskainiz (udalek behar duten aholkularitza teknikoa, orain arte bezala, hartarako finkatutako subjektu espezializatuen bidez egingo da).
 - » Ekimen politiko-instituzionalak landu, ekintza politikoko idazkariarekin batera.
 - » Udalgintza arduradunaren lantaldea herrialdeko eta eskualdeko udalgintza arduradunek osatuko dute.
- Eraketa Saila/arduraduna.
 - » Ildo politikoa dinamizatzea tokiko planoan; alegia, ildo politikoa inplementatzea, berau tokian-tokiko errealitatera egokituz.
 - » Elikadura eta irizpide politikoak helaraztea Tokiko Idazkaritza eta, kasuan, Mahai Politikoei. Horretarako, Udalgintza Sailaren kasuan esan bezala, herrialdeko eraketa eta udalgintza arduradunek elkarlanean jardungo dute, batetik, haien artean, eta, bestetik, eskualdeko eraketa eta udalgintza arduradunekin.
 - » Antolaketa-garapena eta indartzea. Alegia, antolakundearen gaitasun operatiboa lurralde osora hedatzen dela ziurtatzea.
 - » Tokiko mapa politiko-organizatiboen jarraipena.
 - » Eraketa arduradunaren lantalde herrialdeko eta eskualdeko eraketa arduradunek osatuko dute.
- Nazioarteko politika eta Harremanen Saila/arduraduna.
 - » Estrategia politikoaren nazioarteko deklinazioaren egikaritzea.
 - » Nazioarteko harreman-eskema osoaren kudeaketa eta elikatzea.
 - » Euskal Herritik kanpoko eragileekin izan litezkeen aliantzen kudeaketa.
 - » Nazioarteko egoeraren eta gertakarien analisisa (koiunturala zein egiturazkoa) eta haien aurreko posizioaren zein balizko ekimen politiko-instituzionalen lanketa.
 - » Elkartasun eta elkarlan ekimenak sustatu edota babestea.
 - » EH Bilduren Programa politikoari ekarpena egitea, munduaren luze zabaleko garai guztietako praktika onak gurerara ekarriz.

- Komunikazio Saila/arduraduna.
 - » EH Bilduren komunikazio politikoko estrategiaren diseinua eta kudeaketa.
 - » EH Bilduren posizionamendua finkatzea agenda informatibo eta mediatikoan.
 - » EH Bilduren jardura sozio-politikoaren lanketa ekintza politikoko idazkariarekin batera.
 - » EH Bilduren diskurtsoari koherentzia ematea.
 - » Komunikazio arduradunaren lantaldea herrialdeko komunikazio arduradunek osatuko dute.

3.2. ERAKETA SAILAREN BIRKOKAPENA ETA INDARTZEA

Aurreko azpi-puntuan jaso bezala, Eraketa Azpi-Saila Antolaketa Sailaren baitatik atera eta sail oso birlakatzeko apustua egiten dugu, baita, horrenbestez, eraketako arduraduna bai Hegoaldeko Idazkaritzan bai Hegoaldeko Mahai Politikoan kokatzekoa ere. Era berean, herrialdeko eraketa arduradunak beren Herrialdeko Idazkaritzan eta, kasuan, Mahai Politikoan egongo dira [ikus 3. irudia *Zuzendaritza-egitura, sailak eta haien arteko harremanak* - 52 orrialdea].

3.3. ARLOKAKO IDAZKARITZEN EZAUGARRI BERRIAK

Azken lau urteotako balantzean jasotakoaren argitara, Arlokako Idazkaritzak aldatzea proposatzen dugu.

Hala, hemendik aurrera, orain arte Arlokako Idazkaritzek jorratu izan dituzten hausnarketak Arlokako Idazkaritzetatik atera eta, 2.5 azpi-puntuan esan bezala, kidego zabalaren parte-hartzea ahalbideratuko duten eta arautegi zehatza izango duten ad-hoc eztabaida-prozesuen bidez jorratuko ditugu.

Bestalde, Arlokako Idazkaritzek lantalde trinko eta iraunkor izateari utzi eta Arlokako Idazkaritza bakoitza koordinatuko duen arlokako idazkari bakoitzaren bueltan antolatutako kolaboratzaile-sarearen forma hartuko dute.

Arlokako idazkarien egitekoak izango dira:

- Arlokako Idazkaritza bakoitzaren lan-eremuaren ikuspegi orokorra izatea (lan-eremuaren eboluzioarena eta EH Bilduk arlo horretan jorratzen duen ekimen politiko-instituzionalarena).
- Lan-eremu horretan EH Bilduk duen erreferentziazko pertsona izatea; alegia, lan-eremu horri loturiko interlokuzio- zein bozeramaile-lanak egitea.
- Lan-eremu horietako ekimen politiko-instituzionalari dagokionez, EH Bilduk egin beharreko jauzi programatikoak identifikatzea.
- Jauzi programatiko horien ekoizpenean parte hartzea.

Ez arlokako idazkarien ez Programa Idazkaritzaren zeregina ez da egunerokotasun instituzionalak eskatzen dituen edukien sorkuntza egitea. Hori, arestian esan bezala, Politika Instituzionaleko Sailaren beraren zeregina izango da [ikus 3.1 azpi-puntua].

Orain arte bezala, Batzar Nagusiak, Mahai Politikoak proposatuta, egoki jotzen dituen Arlokako Idazkaritza guztiak sortu ahal izango ditu, baita horien guztien ezein berrantolaketa egin ere. Hain zuzen, Kongresuaren ostean, Mahai Politikoak Arlokako Idazkaritzen/idazkarien proposamen zehatza luzatuko dio Batzar Nagusiari. Proposamen horrek, ohiko arloez gain (euskara, hezkuntza, sozioekonomia,

trantsizio ekosoziala, zaintza, kultura- eta jatorri-aniztasuna...), berriagotzat jo ditzakegun beste arlo batzuk ere haintzat hartuko ditu, hala nola, aniztasun funtzionalarena.

Halaber, orain arte bezala, eraldaketa-bektore nagusietako bat den heinean, beti egongo da Feminismoen Idazkaritza bat, izaera transbertsala izango duena, zeinaren eginkizuna izango den gainerako Arlokako Idazkaritzak, Programa Idazkaritza eta, oro har, antolakunde osoa balio eta praxi feministez blaitzea, eta zeinaren arduraduna (feminismoen idazkaria) Mahai Politikoan egongo den.

Era berean, belaunaldi berriak egitasmo subiranista eta independentista-eraldatzailera lotzeak duen estrategikotasuna gogoan, beti egongo da Gazte Idazkaritza bat, zeinaren arduraduna (gazte idazkaria) Mahai Politikoan egongo den.

3.4. HAUTESKUNDE ZERRENDAK OSATZEKO PROZEDURA EGOKITZEA

Alderdien Mahaiak proposatuta, udaletako hauteskunde-zerrenden osaketa-prozedura instituzio guztietara orokortzeko apustua egiten dugu. Bestela esanda, instituzio nagusietako (udalak zein udalez gaindiko tokiko erakundeak ez beste guztiak) hauteskunde-zerrendetan orain arte indarrean izan diren alderdien kuotak indargabetzeko apustua egiten dugu.

Horiek horrela, hemendik aurrera, instituzio nagusietan ere honakoa izango da hauteskunde-zerrendak osatzeko prozedura:

- Zerrendaburua bilkideek zein, hala badagokio (alegia, hartarako aukera emanez gero), horretarako espresuki inskribatutako lagun guztiek aukeratuko dute, parte hartzean oinarritutako prozeduren bidez.
- Gainerako hautagaiak, berriz, ex profeso sortutako hauteskunde-zerrenden batzorde batek proposatuko ditu. Guztiak dagokion hauteskunde-barrutiko bilkideek eta, hala badagokio, horretarako espresuki inskribatutako lagun guztiek berretsi beharko dituzte.
- Hauteskunde-zerrenden batzorde hori osatuko dute:
 - » EH Bildu osatzen duten eta dagokion hauteskunde-barrutian antola-tuta dagoen alderdi politiko bakoitzeko ordezkari batek (betiere alderdi horiek bi edo gehiago badira).
 - » Hauteskunde-barruti horri dagokion Batzarrak aukeratutako beste horrenbeste bilkidek.
 - » Behin hautatuta, zerrendaburuak berak.

Hauteskunde-zerrendak osatzeko prozesuan, Erregelamenduek hartarako finkatutako unean, Alderdien Mahaiak izen proposamenak luzatu ahal izango ditu.

4. Zuzendaritza-egituran egokitzapenak

4.1. HEGOALDEKO PLANOA

Kongresua

Parte hartzea sustatze aldera, bi egokitzapen egitea proposatzen dugu:

- Batetik, Kongresuan parte hartu ahal izateko garaian finkatutako gutxieneko antzintasuna urte batetik sei hilabetera murrizteko apustua egiten dugu.
- Bestetik, orain arte indarrean izan diren zuzenketen gaineko filtroa (egun, Kongresuko parte hartzaileen %15ekoa) eta Kongresuan parte hartu nahi duten bilkideek espresuki akreditatzeko derriortasuna eza-batu eta Kongresuaren antolamendua, oro har, III. Kongresu hau egiteko baliatu dugun araudira egokitzeko apustua egiten dugu.

Konferentzia Politikoa eta Batzar Orokorra

Konferentzia Politikoari dagokionez, jauzi kualitatibo bat egiteko apustua egiten dugu:

- Batetik, ildo politiko orokorraren lanketa eta transmisiorako ziklo esaten diogun horren baitako mugarri nagusia izaki, kidegoaren aldetik parte hartze handiagoa ahalbideratu eta are bermatuko duten formatu eta metodologiak erabiliko ditugu.
- Bestetik, 2,5 azpi-puntuan esan bezala, Konferentzia Politikoa Programa politikoaren eraikuntzarako prozesu iraunkorraren baitan ere mugarri garrantzitsua bilakatzeko apustua egiten dugu. Hala, batzuetan, azpi-puntu horretan hizpide ditugun eztabaida estrategikoak abiatzeko edota eztabaida horien emaitzak berresteko baliatuko dugu; beste batzuetan, berriz, eztabaida estrategiko horien baitako lan-saioak egiteko.
- Guztiarekin, Konferentzia Politikoa, lan-bilkuraz haratago, ekitaldi politiko-kultural bat bilakatzeko apustua egiten dugu. Hala, definizioz bere baitan hartzen duen Batzar Nagusiaz aparte (Konferentzia Politikoa, estatutarioki, lan-urte politikoaren hasieran egiten den Batzar Nagusi bat besterik ez da), ekitaldi politiko-kultural ezberdinak ere barne-hartuko ditu: hitzaldiak, mahai inguruak, erakusketak, herri-bazkaria, kontzertuak... Modu horretan, kidegoaren urteko hitzordu nagusian eta are ezkerreko subiranismoaren eta independentismoaren komunitatearen artikulaziorako une/gune garrantzitsu batean bilakatuz.

Batzar Nagusiari dagokionez, oro har, gauzak bere horretan uzteko apustua egiten dugu.

- Hala, orain arte bezala, Batzar Orokorra bi modalitatetan egin ahal izango da:
 - » Modalitate unibertsala (eskuarki).
 - » Bilkide guztiek hartu ahal izango dute parte, hitzarekin eta botoarekin.

- » Ordezkaritza bidezko modalitatea (salbuespenez).
 - › Tokiko Batzarrek nominalki hautatutako ordezkariak hartu ahal izango dute parte, hitzarekin eta botoarekin [ikus 4.5 azpi-puntua].
 - › Gainera, honako hauek osatuko dute ordezkaritza bidezko modalitateko Batzar Orokorra, hitzarekin baina botorik gabe:
 - Hegoaldeko Mahai Politikoko kideak.
 - Herrialdeko Idazkaritzetako eta, kasuan, Mahai Politikotako kideak.
- Batzar Nagusiaren ordezkaritza bidezko modalitatean ezein erabaki hartzeko, tokiko ordezkariak aldeztetik beren Tokiko Batzarren iritzia jaso beharko dute, eta iritzia horri lotu beharko zaizkio.
- Batzar Nagusiak orain arteko eskumen berdinak izango ditu.

Hegoaldeko Mahai Politikoa-Idazkaritza

Egunoaren ordeza, bi ganberako zuzendaritza-eredu baten aldeko apustua egiten dugu. Alegia, Mahai Politikoa eta Idazkaritza, biak ala biak izango dira zuzendaritza markoak; lehena, normalean, bi hilean behin bilduko da, baita, ezohiko eran, ildo politikoa gaineko erabaki garrantzitsu bat hartu behar den guztietan ere, eta epe erdi-luzera begirako zuzendaritzaz arduratuko da; bigarrena, berriz, ohiko eran, as-tero bilduko da, eta eguneroko zuzendaritzaz arduratuko da. Idazkaritzak bere eskumenekoak diren eta egoki deritzen erabaki guztiak Mahai Politikoa esku utzi ahal izango ditu. Halaber, Mahai Politikoa Idazkaritzak eskuartearen duen edozein gai edo erabakiren gaineko eskumena erreklamatu ahal izango du.

Idazkaritzaren osaketa berria hau izango da:

- Idazkari orokorra.
- Antolaketa idazkaria.
- Antolaketa idazkariaren ondokoa.
- Ekintza politikoko idazkaria.
- Programa idazkaria.
- Harremanen idazkaria.
- Politika instituzionaleko arduraduna.
- Udalgintza arduraduna.
- Eraketa arduraduna.
- Nazioarteko politika eta harremanen arduraduna.
- Komunikazio arduraduna.
- Arabako arduradun politikoa.

- Bizkaiko arduradun politikoa.
- Gipuzkoako arduradun politikoa.
- Nafarroa Garaiko arduradun politikoa.
- EAEko Legebiltzarreko talde parlamentarioaren bozeramailea/EAEko lehendakaria.
- Nafarroa Garaiko Parlamentuko talde parlamentarioaren bozeramailea/Nafarroa Garaiko lehendakaria.

Mahai Politikoaren osaketa, berriz:

- Idazkaritzako kideak.
- EH Bildu osatzen duten alderdietako ordezkari bana.
- Madrilgo Kongresuko eta Senatuko talde parlamentarioen bozeramaileak.
- Europako Parlamentuko talde parlamentarioaren bozeramailea.
- Herrialde bakoitzeko hiruna kide, herrialde-irizpidez hautatuak.
- Feminismoen idazkaria.
- Gazte idazkaria.

Idazkaritzaren eskumenak izango dira:

- EH Bilduren helburuak betetzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak egitea eta haren proiektu politikoak zuzentzea.
- Tokiko eta herrialdeko organoak ikuskatzea, dinamizatzea, koordinatzea eta informatzea.
- Koalizioaren barne-antolakuntza bideratzea eta tokiko planoan dituen erakundeak hedatzea.
- Beste erakunde politiko eta sozial batzuekin harremanak izatea.
- Hauteskunde-kanpainen antolaketa eta aurrekontua onartzea.
- Batzar Orokorra zein modalitatetan egingo den erabakitzea.
- Diziplina-araubidean esleitzen zaizkion funtzioak betetzea.
- Afiliazio eskaerak onartzea.
- EH Bilduko langileen kontratazioa onartzea.
- EH Bilduko hautetsien eta kargudun organikoen lan-araubidea onartzea.
- Trebakuntza programak ikuskatzea.

Mahai Politikoaren eskumenak izango dira:

- EH Bilduren baliabideen eta ondarearen administrazioa gainbegiratzea.
- Kongresuari Oinarrizko Ponentzia eta zuzendaritza-organoak berritzeko hautagaitzak aurkeztea.

- Batzar Nagusiari eztabaida estrategikoak jorratzeko proposamenak luzatzea.
- Batzar Nagusiari EH Bilduren urteko Plan Politikoa eta aurreko urteko Plan Politikoen balantzea aurkeztea.
- Urteko aurrekontua eta aurreko urteko aurrekontuaren balantzea onartzea.
- Batzar Nagusiari EH Bilduren Estatutuak garatuko dituzten Araudiak proposatzea.
- EH Bilduren Estatutuak edo goragoko organoen ebazpenak urratzen dituzten toki mailako organoen, herrialde mailako organoen eta Hegoaldeko Idazkaritzaren erabakiak baliogabetzea. Erabaki horiek errekurritu ahal izango dira Berme Batzordearen aurrean.
- Hegoaldeko Idazkaritzak diziplinaren eta afiliazioaren arloan hartutako erabakien aurkako helegiteak ebaztea.
- EH Bildu partaide izan litekeen federazioetako edo koalizioetako organoetan berari legozkiokeen ordezkariak izendatzea. Eskumen hori goragoko zuzendaritza-organoen esku utz lezake.
- EH Bildu partaide izan litekeen federazioen edo koalizioen hauteskunde-zerrendetan berari legozkiokeen kargu publikoetarako hautagaiak izendatzea. Eskumen hori goragoko zuzendaritza-organoen esku utz lezake.
- Hegoaldeko Idazkaritzak bere esku uzten dituen erabaki guztiak.

Hautaketa modua honakoa izango da:

- Idazkaritzari dagokionez, ardura nagusitzat jo ditugun horiekin orain arte egin dugun bezala, bost ardura nagusiak (idazkari orokorra, antolaketa idazkaria, ekintza politikoko idazkaria, programa idazkaria eta harremanen idazkaria) hautagaitza kolektibo bakarra bailiran hautatuko dira, Kongresuko eskubide osoko parte hartzaile guztiek hautatu ere. Bost sailen arduradunak eta herrialdeko arduradun politikoak, berriz, hautagaitza indibidualak izango dira; bost sailen arduradunak Kongresuko eskubide osoko parte hartzaile guztiek hautatuko dituzte; herrialdeko arduradunak, berriz, dagokion herrialdeko eskubide osoko parte hartzaileek baino ez. Azkenik, EAEko Legebiltzarreko talde parlamentarioaren bozeramailea/EAEko lehendakaria, Nafarroa Garaiko Parlamentuko talde parlamentarioaren bozeramailea/Nafarroa Garaiko lehendakaria eta antolaketa idazkariaren ondo-koa, duten ardura medio, Idazkaritzako eta, beraz, Mahai Politikoko berezko kideak izango dira.
- Kargua utziko duen Mahai Politikoak plantxa-proposamen bat egingo du Idazkaritzako hautapen-kargu guztietarako (alegia, Idazkaritzako berezko kideak ez beste ardura guztietarako). Plantxa-proposamen horrek jasotako hautagaitzei alternatibak aurkeztu ahal izango zaizkie. Alternatiba horiek izan ahalko dira:
 - » Bost ardura nagusien kasuan, hautagaitza kolektibo alternatibo oso bat.
 - » Bost sailen arduradunen eta herrialdeko arduradun politikoen kasuan, banakako hautagaitza alternatiboak.
- Mahai Politikoari dagokionez, Idazkaritzako kideak, Madrilgo Kongresuko zein Senatuko eta Europako Parlamentuko talde parlamentarioen bozeramaileak, feminismoen idazkaria eta gazte idaz-

karia, duten ardura medio, Mahai Politikoko berezko kideak izango dira. EH Bildu osatzen duten alderdien ordezkariak beren alderdiek hautatuko dituzte, alderdi bakoitzean ezarritako prozedurari jarraiki. Antolaketa idazkariaren ondokoa antolaketa idazkariak izendatuko du. Azkenik, herrialde bakoitzak herrialde-irizpidez hautatu beharreko hiru kideak hautagaitza kolektibo bakarra bailiran hautatuko dira, Kongresuko dagokion herrialdeko eskubide osoko bilkideek hautatu ere.

- Kargua utziko duen Herrialdeko Mahai Politiko bakoitzak (Mahai Politikorik ez balego, Idazkaritzak) bere herrialdeko hirukoterako hautagaitza-proposamen bat egingo du. Hautagaitza horri alternatibak aurkeztu ahal izango zaizkio. Alternatiba horiek hirukote alternatibo osoak izan beharko dute, nahitaez.
- Kongresuko eskubide osoko parte hartzaile orok bere burua hautagai aurkeztu ahal izango du, dela bost ardura nagusietako baterako (hautagaitza kolektibo alternatibo oso baten baitan), dela bost sailtako baterako, dela bere herrialdeko arduradun politikoa izateko, dela bere herrialdeak herrialde-irizpidez hautatu beharreko hiru kideetako bat izateko (hirukote alternatibo oso baten baitan). Kide bakoitza ardura bakarrera aurkeztu ahal izango da hautagai gisa.

Idazkarien Batzordea

Ardura nagusiak, alegia, idazkari orokorra, antolaketa idazkaria, ekintza politikoko idazkaria, programa idazkaria eta harremanen idazkaria bilduko dituen markoa; koordinazio ondorioetarako soilik izango dena, alegia, eskumen erabakitzaileak izango ez duena; parte hartzaileetako edozeinek eskatuta, nahi bestetan bilduko dena; eta, Mahai Politikoak eta Idazkaritzak bezalaxe, puntualki, eskuartean dituen gaien lanketarako interesgarri deritzen kideak inkorporatu ahal izango dituen.

Batzorde honen zioa da orain arte zuzendari nagusiarena izan den ardura/papera kolektibizatzea eta mankomunatzea, modu horretan, ardura hori indartuz eta kultura parte hartzaileagoa sustatuz.

Berme Batzordea

Diziplina-espedienteetan, Berme Batzordea azken instantzia bilakatzeko apustua egiten dugu, balizko zehapenen gaineko azken hitza bere esku utziz, modu horretan, prozesu garantistago bat instituzionalizatuz, eta, bidenabar, bere lan karga arinduz, diziplina-espedienteen instrukzioak lan handia eskatzen baitu.

Horiek horrela, diziplina-espedienteak instruitzea Hegoaldeko Idazkaritzaren zeregina izango da, zeinetarako, aipatutako espediente bakoitzeko, bere kideen artean instruktore bat izendatuko duen, zeinak, instrukzio aldiaren ostean, Hegoaldeko Idazkaritzari ebazpen proposamen bat egingo dion, erabaki bat har dezan. Nazio Idazkaritzaren erabaki horren aurka babes helegitea aurkeztu ahal izango da Berme Batzordearen aurrean. Diziplina Erregelamendua hemen esandakoen argitara egokituko da.

4.2. HERRIALDEKO PLANOA

Herrialdeko Batzarra

Herrialdeko Batzarraren ordezkaritza bidezko modalitatea sortzeko apustua egiten dugu, Batzar Orokorraren ordezkaritza bidezko modalitatearen herrialde mailako baliokidea litzatekeena. Modu horretan, Hegoalde mailan bezalaxe, Herrialdeko Batzarra bi modalitatetan egin ahal izango da: modalitate unibertsalean eta ordezkaritza bidezko modalitatean.

Orain arte bezala, modalitate unibertsalean dagokion herrialdeko bilkide guztiek hartu ahal izango dute parte.

Herrialdeko Batzarraren ordezkaritza bidezko modalitatean, berriz, parte hartuko dute:

- Dagokion herrialdeko tokiko ordezkariak [ikus 4.5 azpi-puntua], hitzarekin eta botoarekin.
- Herrialdeko Idazkaritzako eta, kasuan, Mahai Politikoko kideak, hitzarekin baina botorik gabe.

Herrialdeko Batzarraren ordezkaritza bidezko modalitatean ezein erabaki hartzeko, tokiko ordezkariak aldezturik beren Tokiko Batzarraren iritzia jaso beharko dute, eta iritzi horri lotu beharko zaizkio.

Herrialdeko Batzarrak orain arteko eskumen berdinak izango ditu.

Herrialdeko Mahai Politikoa-Idazkaritza

Hegoalde mailan bezalaxe, bi ganberako zuzendaritza-eredu baten aldeko apustua egiten dugu. Herrialdeko Idazkaritza eta, kasuan, Mahai Politikoa, biak ala biak izango dira zuzendaritza markoak, Hegoaldeko Mahai Politikoa eta Idazkaritzaren ezaugarritze baliokidearekin, hurrenez hurren.

Herrialdeko Idazkaritzaren osaketa hau izango da:

- Herrialdeko arduradun politikoa.
- Herrialdeko eraketa arduraduna.
- Herrialdeko hiriburuko arduradun politikoa.
- Herrialdeko politika instituzionaleko arduraduna.
- Herrialdeko udalgintza arduraduna.
- Herrialdeko komunikazio arduraduna.
- Batzar Nagusietako batzarkide-taldeko bozeramailea (Arabak, Bizkaia eta Gipuzkoa) / Parlamentuko talde parlamentarioko bozeramailea (Nafarroa Garaia).

Herrialdeko Idazkaritzaren eskumenak izango dira:

- Herrialdeko Batzarra dinamizatzea.
- Herrialdeko ildo politikoa planifikatu eta dinamizatzea, ildo politiko orokorra herrialdean deklinatuz eta, hala badagokio, herrialdeko lan-ildo propioekin osatuz.
- Batzar Nagusietako batzarkide-taldea (Arabak, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta Nafarroa Garaiko talde parlamentarioa ikuskatu, dinamizatu, koordinatu eta informatzea.
- Herrialdeko Batzarra zein modalitatetan egingo den erabakitzea.

Nafarroa Garaia, bertako bilkideek kontrakorik erabakitzen ez duten artean, bederen, Herrialdeko Mahai Politikoa izango da, Nafarroa Garaiko Batzarrak berak egoki irizten dien osaketa, eskumen eta bilkura-maiztasun zehatzekin.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, printzipioz, Herrialdeko Idazkaritza izango da zuzendaritza organo bakarra, baina dagokion herrialdeko bilkideek hala erabakitzen badute, Herrialdeko Mahai Politikoa eratu ahal izango dute Nafarroa Garaia kasuan aipatu baldintza berdinetan.

Eskualdeko Tokiko Arduradun Politikoen Gunea eta Eskualdeko batzarrak

Ildo politikoaren transmisiorako eta koordinaziorako aspaldi honetan sortu eta baliatu ditugun Eskualdeko Tokiko Arduradun Politikoen Gunea eta Eskualdeko Batzarra instituzionalizatu eta formalizatzearen aldeko apustua egiten dugu, hori bai, aipatu bi zeregin horien ondorioetarako baino ez; alegia, ez Eskualdeko Tokiko Arduradun Politikoen Guneak ez Eskualdeko Batzarrak ez dira ez zuzendaritza-organok ez erabaki-markoak izango. Bestela esanda, oro har, eskualdea ez da Hegoaldekoaren, herrialdekoaren eta tokikoaren pareko maila organizatibo bat izango, 164. paragrafoan esaten den bezala, tokian-toki, hartarako aukera zabalik uzten den arren.

Eskualdeko Tokiko Arduradun Politikoen Gunean dagokion eskualdeko tokiko arduradun politikoak bilduko dira.

Eskualdeko Tokiko Arduradun Politikoen Gunea hilabetero bilduko da, dagokion eskualdeko eraketa arduradunak deituta eta dinamizatuta.

Eskualdeko Batzarretan, berriz, eskualde bakoitzeko kideak bilduko dira, beharrezkoa jotzen den bakoitzean, eskualdeko eraketa arduradunak deituta eta dinamizatuta.

4.3. TOKIKO PLANOA

Tokiko planoko antolaketa, ñabardurak-ñabardura, dagoen dagoenean uztearen aldeko apustua egiten dugu.

Tokiko Batzarra

Tokiko Batzarra tokiko erabaki-organoren goren da, eta Tokiko Idazkaritzak (zein, kasuan, Mahai Politikoa) eta Udal Taldeak haren agindua bete beharko dute, eta hari kontuak eman beharko dizkiote.

Lurralde-eremu horretako bilkide guztiek osatzen dute.

Honako funtzio hauek ditu:

- Ildo politiko orokorra toki-mailara eramatea.
- Lurralde-eremu horri dagozkion gaien inguruko gogoeta egitea eta erabakiak hartzea, antolakuntza-alderdiak barne hartuta (hala nola beharrezkotzat hartzen dituen lantaldeak osatzea –hautetsien taldea, talde municipalista, komunikazio eta propaganda lantaldea eta abar- eta Tokiko Idazkaritzaren zein, kasuan, Mahai Politikoen osaera, hautatzeko prozedura eta hautaketa bera).
- Beharrezkoak diren antolakuntza-doikuntzak egitea eta Tokiko Idazkaritzan zein, kasuan, Mahai Politikoa hutsik geratu diren tokiak berritzea. Halaber, Tokiko Idazkaritzako zein, kasuan, Mahai Politikoko kideen aurka aurkeztutako errebotatze-eskaerak ebatziko ditu.
- Udal-hauteskundeetarako hautagaiak aukeratzea.

Tokiko Batzar bakoitzak ordezkartza izango du bai Batzar Orokorrean bai Herrialdeko Batzarrean (kasu bietan ere, ordezkartza bidezko modalitatean).

- Orain arte bezala, Tokiko Batzar bakoitzak horretarako hautatu beharreko ordezkarien kopurua honako hau izango da:
 - » 25 bilkide baino gutxiagoko Batzarrak: ordezkari 1.
 - » 25-50 bilkideko Batzarrak: 2 ordezkari.
 - » 50 bilkide baino gehiagoko Batzarrak: 3 ordezkari.
- Orain arte bezala ere, ordezkarietako bat tokiko arduradun politikoa izango da nahitaez, eta bestea (edo besteak), berriz, Tokiko Batzarreko kideen artean hautatuko d(ir)a. Halaber, ordezekoak hautatuko dira.
- Tokiko Batzarrak ordezkariak eta haien ordezekoak hautatuko ditu Kongresu bakoitzaren ostean, Kongresua ohiko zein ohiz kanpokoan izan, eta hautaketa hori berritu beharko du tokiko bilkideen kopuru-aldaketak ordezkari kopuruaren aldaketa bat dakarren bakoitzean.
- Tokiko ordezkariak berberak izango dira Batzar Orokorraren eta Herrialdeko Batzarraren kasurako.

Tokiko Batzarrak ez du aldizkakotasun finkorik izango, baina urtean bi aldiz bildu beharko du gutxienez, tokiko arduradun politikoa deituta. Gutxienean bi bilkura horiek lan urte hasieran eta bukaeran kokatuko dira, eta Plan Politikoaren zein tokiko plangintzaren lanketari eta berauen balantze ariketari zuzenduko zaizkie, hurrenez hurren.

Tokiko Mahai Politikoa-Idazkaritza

Hegoalde eta herrialde mailako zuzendaritza-markoetan egindako egokitzapenarekin koherentzian, Tokiko Mahai Politikoa Tokiko Idazkaritza izatera pasako da.

Tokiko Idazkaritza izango da, defektuz, tokiko zuzendaritza marko bakarra, tokian toki (hiriguneak, herri handiak...), Tokiko Batzarrak bigarren zuzendaritza ganbera bat (Mahai Politikoa) eratu ahal izango duen lanketari, betiere hartarako beharra eta baldintzak baldin badaude.

Tokiko Idazkaritzaren funtzioak izango dira:

- Tokiko Batzarra dinamizatzea.
- Tokiko plan estrategikoaren elaborazioa eta jarraipena.
- Tokiko ildo politikoa planifikatu eta dinamizatzea, ildo politiko orokorra toki-mailara eramatea eta lan-ildo propioekin osatzea.
- Udal Taldea eta osatu diren lantalde guztiak ikuskatu, dinamizatu, koordinatu eta informatzea.

Honako arduradun hauek osatuko dute gutxienez:

- Tokiko arduradun politikoa; Tokiko Batzarrak hautatuko du.
- Udal Taldeko arduraduna; Udal Taldeak berak hautatuko du.

Tokiko Idazkaritza osatuko da, lehentasunez, tokiko antolakuntzako arduradunarekin eta tokiko komunikazioko arduradunarekin, baita era litezkeen lantaldeetako (hala nola, talde munizipalistako) arduradunekin ere.

Tokiko Idazkaritza berak erabakitzen duen aldizkakotasunarekin bilduko da, tokiko arduradun politikoak deituta.

Arestian esan bezala, Tokiko Batzarrak hala erabakiz gero, Tokiko Mahai Politikoa eratu ahal izango du, Tokiko Batzarrak berak egoki irizten dien osaketa, eskumen eta bilkura-maiztasun zehatzekin.

Puntu honetan ohar garrantzitsu bat egin beharra dago, bai tokiko planorako bai herrialdekorako balio duena: hala antolaketa-egitura nola funtzionamendua errealitate zehatz bakoitzari egokitu behar zaizkio, baita, tokian toki, ezaugarri jakin batzuk betetzen dituzten eskualdeen kasuan (herri txiki askoz osatuta, eskualde mailako dinamika sozio-politiko edota instituzional propioduna, metropoli-izaeradunak...), maila honetan antolatu eta, hartara, Hegoaldekoaren, herrialdekoaren eta tokikoaren pareko maila organizatibo bat osatzeko aukerari dagokionez ere. Alegia, tokian tokiko errealitatearen ezaugarriek, indar militanteak eta jorratu beharreko dinamika politikoak aginduko dituzte beharrezko antolaketa-egitura eta funtzionamendu zehatzak. Beraz, hemen marrazten ari garena planteamendu estandarra edo minimoetako da; hortik aurrera, malgutasuna, moldagarritasuna eta funtzionaltasuna, horiek izan behar dute printzipio gidariak.

Udal Taldea

Udal-talde instituzionalak dira toki-mailako erakundeetan ekintza politikorako legez ezarritako tresna. Orain arte bezala, Hegoaldeko Udal Taldeen Koordinakundea haiei prestakuntza eta aholkularitza eman eta haien funtzionamenduari laguntzeaz arduratuko da.

Talde Munizipalista

Tokiko lantaldea, zinegotziez eta tokiko jendarte-dinamika eta herri-mugimendu ezberdinetan murgildutako bilkideez osatua egongo dena, eta tokiko herri proiektua hauspotzeaz arduratuko dena.

Tokiko Programaren eraikuntza dinamizatzearaz ere arduratuko da, parte-hartzean oinarritutako prozesuen eta 2.3 azpi-puntua aipatutako entzuketara aktiborako berariazko ariketen bitartez, eta Tokiko Batzarrari helaraziko dizkio bai programa hori, bai haren garapen eta inplementazioarekin lotutako proposamen guztiak, hala badagokio, onar ditzan.


Hiriburuak

Hiriburuetako auzoetan herrietakoaren pareko egitura sortu eta, beraz, antolakuntza-terminoetan, auzoak eta herriak parekatzearen aldeko apustua egiten dugu.

Hala, hiriburuetako auzoetan Auzoko Batzarra eta Auzoko Idazkaritza eratzea proposatzen dugu, Herriko Batzarren eta Herriko Idazkaritzen ezaugarritze baliokidearekin.

Hiriburu mailan Hiriburuko Batzarra eta Idazkaritza izango dira, baita, Hiriburuko Batzarrak hala erabakiz gero, Mahai Politikoa eta nahi diren lantalde eta koordinazio marko guztiak ere, Tokiko Batzarrak berak egoki irizten dien osaketa, eskumen eta bilkura-maiztasun zehatzekin.


1. irudia - Ildo politikoaren / Programa politikoaren lanketa-zikloa



2. irudia - *Ardura nagusiak, sailak eta haien arteko harremanak*

IDAZKARITZA OROKORRA					
	Antolaketa	Ekintza Politikoa	Programa	Harremanak	
	Ondokoa				
Politika instituzionala					
Udalgintza					
Eraketa					
Nazioarteko politika eta harremanak					
Komunikazioa					

3. irudia - Zuzendaritza-egitura, sailak eta haien arteko harremanak



ehbildu